**Aitor Elkoro**
Atzelaria bere etorkizunaz mintzo da
KIROLA, 21



**Aloña Mendik mendean hartu zuen Real Union**
UDAk 3-0 irabazi dio Ordiziari eta Mondrak 1-2 galdu du
KIROLA, 14-15

**Sei finalistak**
Oñatiko kiroldegia bete zuten
KULTURA, 25



ASTELEHENEKO
# Goienkaria
ASTELEHENA • 2006ko urtarrilaren 9a • 2. urtea • 84. zenbakia • 0,90 euro

## Lehiatila bako lehenengo bulegoa irekiko du Kutxak

*Bergaran jarriko du Kutxak lehiatila gabeko Gipuzkoako lehenengo bulegoa*

Eguaztenetik aurrera egongo da erabilgarri lehiatila gabeko Kutxaren lehenengo bulegoa. Bergarako Simon Arrieta plazan zuen bulegoa erabat berritu du Kutxak eta makinak izango dira nagusi. Era horretako Gipuzkoako bulego bakarra da, oraingoz, Kutxako bulego horretako zuzendariak adierazi digunez. Herrian beste hiru bulego ditu Kutxak. 6

**MAKINAK NAGUSI**
**Bi kutxazain, dirua sartzeko makina eta Internet bidezko operazioak egiteko makina daude**

**LAU BULEGO**
**Simon Arrieta plazako Gestio bulego berrian, makinez gainera, lau bulego tekniko ere egongo dira**



JOSETXO ARANTZABAL

### HIL AMAIERAN GERTU EGONGO DA EPELE-KASKONATEGI

Gipuzkoako Foru Aldundiko komunikazio arduradunak ASTELEHENEKO GOIENKARIAri adierazi dionez, hil honen amaieran amaituko dute Arrasatera doan bidearen Epele-Kaskonategi errepide zatia. 860 metro luze ditu GI-627ko bide zatiak eta "jaiegunetan lanak moteldu egin diren arren, aurreikusitako moduan hil honen amaieran amaituko dira bidea zabaltzeko lanak". 7

## Jonathan Perez nagusi Anoetan

*Euskadiko txapeldun berria da 4,85 metroko jauzia egin ondoren*



ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Jonathan Perez atleta arrasatearrak Pista Estaliko Kluben Arteko Euskadiko txapelketa irabazi du 4,85 metroko jauziarekin.

Real Sociedad elkartearen kamisetarekin lehiatu zen arrasatearra zapatuan Anoetan. "Ez nuen nire marka pertsonala, 4,95 metroko barrera, gainditzerik izan baina nire asmoa 5 metroko jauzia prestatzea da bi aste barru Valentzian jokatuko den Errege Koparako". Pozik dago arrasaterra lortutako garaipen berri honekin eta marka hobeagoak egitea du helburu. 21

## Mendigoia hotelak asteon zabaldu ditu ateak Eskoriatzan 5

## Gaur ekingo diote 19/98 epaiketari

*Xabier Arregi 'Txapi'-k gaur deklaratuko du eta ondoren, Natale Landak* 5

## Ibarreko kaltetuak pozik daude Biescaseko epaiarekin

Madrilgo Entzutegi Nazionalak abenduaren 21ean eman zuen jakitera Biescaseko Las Nieves campingean gertatutako ezbeharraren gaineko epaia. Haren arabera, Estatuak eta Aragoiko Gobernuak 11,2 milioi euro ordaindu beharko dizkiete kaltetuei. Ibarreko bi lagunek galdu zuten bizitza uholde hartan: Begoña Azkarate antzuolarrak eta Patxi Mugertza oñatiarrak.

Epaia berandu etorri bada ere sendiek, "pozik" hartu dutela azaldu dute, "nahiz eta horrek joandakoen hutsunea sekula ez duen beteko". Bestalde, kexu dira "administrazioko inor inplikatu ez dutelako, hau da, campinga egiteko baimena eman zuenetako inor". 5

# GEUREAN

- Biescaseko hondamendiaren epaiaz jardun dugu ibarreko kaltetuekin | 6
- Saray Leal bergarararrekin *Gran Hermano*ko bizipenez jardun dugu | 10



**Xabier Arregi bergararrak gaur berriz ekingo dion 18/98 sumarioaz berba egin dugu | 5**

**TOKIKO TELEBISTEN GAINEKO DEKRETUA**



ASTELEHENEKO GOIENKARIA

GOITBn produkzio lana digitalizaturik dago erabat. Emisioa, ordea, analogikoa da.

**TOKIKO TELEBISTAK** | JAURLARITZAK HILEON ATERAKO DU TOKIKO TELEBISTAK ARAUTZEKO DEKRETUA

# Euskarazko tokiko telebistentzako ez da lizentziarik erreserbatu

*Euskara lehentasunezkotzat jo arren, Jaurlaritzak ez du lizentziarik gorde euskarazko tokiko telebistendako. Tokiko elkarteak eta Kultura Sailak martitzenean batzarra egingo dute*

Marijo Deogracias

Euskal Herrian euskara hutsean ari diren zazpi telebista daude, tartean, Goiena Telebista, Debagoieneko tokiko telebista. Kultura Saila tokiko telebista digitalak arautuko dituen dekretua gertatzen ari da. Hasiera baten urtarrilerako gertu izatea espero zuten, baina kontuan izanik hainbat zuzenketa aurkeztu dizkiotela bai Tokiko elkarteak –euskarazko tokiko telebisten elkarteak– bai ikus-entzunezkoetan adituak diren EHUko hiru irakaslek, segurutik ezingo dute dekretua hileon onartu. Tokikok, esaterako, martitzenean dauka hitzordua Kultura Sailarekin, dekretuari aurkeztutako zuzenketez aritzeko.

**HAMABOST BARRUTI**

Dekretuaren arabera, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan tokiko telebisten hamabost barruti egongo dira, eta hortxe arituko dira lehiaketara aterako diren tokiko telebista berriak. Horietako bakoitzean lau lizentzia ematea aurreikusi du Jaurlaritzak; eta dekretuaren arabera euskarazko produkzioa lehentasunezkoa bada ere, ez da euskarazko tokiko telebista bakar batentzako ere lizentziarik gorde. Dekretuan jasotzen diren baldintzak betetzen dituen edozein erakunde publikok zein pribatuk eskatu ahal izango ditu telebista lizentzia horiek.

Alegazioak aurkeztu dituztenek, "barruti bakoitzean gutxienez euskara hutsezko telebista kate batek jardun behar" duela defendatzen dute; izan ere, eta Iñazio Arregi Goienako gerenteak azaldu digunez, "lizentziak hamar urterako izango ei dira eta lehiaketatik kanpo geratzen diren barrutiek ez dute euskarazko telebistarik izango aldi luze baten".

Horrez gain, tokiko telebistetan exijituko diren hizkuntza kuotek ez dute bermatuko euskaldunek euskaraz informatuak izateko duten eskubidea. Horrela adierazi dute EHUko hiru irakaslek aurkeztutako alegazioetan. "Tokiko telebistak normaltasun linguistikoa lortzeko ezinbesteko tresna dira, baina Jaurlaritzak ez du euskararen presentzia modu berean aurreikusten telebista publiko eta pribatuetan. Hori horrela, eta kontuan izanik komunikazio talde handiek hiriburu eta herri handietan banatuko diren lizentziak lortu nahiko dituztela, eta euren interesak ez direla hizkuntza normalizazioaren aldekoak, hizkuntza irizpideak aldatu egin beharko lituzkete dekretua indarrean sartu aurretik", diote EHUko irakasleek.

**Barruti bakoitzean lau tokiko telebista berri egoteko aukera dago**

**"Tokiko telebistak normaltasun linguistikoa lortzeko ezinbesteko tresna dira"**

TOKIKO TELEBISTAREN GAINEKO DEKRETUA

## "Euskarak lehentasuna izango du"

**Hizkuntza politikarako sailburuorde Patxi Baztarrikaren iritziz, "Eusko Jaurlaritzak tokiko telebista digitalei ezarri dien helburu eta ezaugarri nagusienetariko bat da euskararen presentziarena, eta horregatik, euskarak lehentasunezko lekua izan dezan neurriak aurreikusten ditu dekretu zirriborroak (...). Dekretuak bermatu egiten du euskararen presentzia tokiko telebista digital guztietan (...). EAEn %10 da euskarak beretzat gordetzen duen batez bestekoa. Hemendik aurrera, nahitaez, tokiko telebista guztietan, pribatuetan zein publikoetan, izango du presentzia euskarak. Titular pribatuen kasuan, gutxienez telebistaren eremuko euskaldunen portzentajearen adinakoa; eta titular publikoen kasuan, gutxienez %50ekoa (...). Exijentziei dagokienez, agente pribatuei baino exijentzia altuagoa ezarriko litzaieke udalei (...). Bi aldetako erronka du euskal gizarteak: euskararen presentzia zabala bermatzea eta euskarazko emisioetarako ikus-entzuleak irabaztea (...). Dekretuak gutxienekoak ezarri eta gehiagorako aukerak ematen ditu: aukera horiek baliatzea da orain kontua eta erronka".**

**IÑAZIO ARREGI** | GOIENAKO KUDEATZAILEA

# "Erdaraz emititzea eskatzen ei du merkatuak"

M.D.

**Goienako kudeatzaile izateaz gainera, Iñazio Arregi Tokiko elkarteko lehendakari ere bada.**



ASTELEHENEKO GOIENKARIA

**Nola eragiten dio estatuko legediak gure eskualdeari?**

Mondragon izeneko barrutia aurreikusten da: Bergara, Oñati, Arrasate, Aretxabaleta eta Eskoriatza. Kanpoan geratzen dira Antzuola, Elgeta, Leintz-Gatzaga eta Aramaio. Horiek ez lukete tokiko telebista izateko, edo ikusteko, eskubiderik; hala ere, Jaurlaritzaren dekretuak Lurralde bereko herriak direnean barrutian sartzeko eskubidea onartzen die, udalek eskaria eginez gero. Guretzat, Aramaioko kasua da arazoa. Beste Lurralde bateko herria izanik ez luke eskubiderik gurean sartzeko, eta hau larria litzateke. Udalarekin hitz egin dugu dekretua puntu honetan aldatzea eska dezan.

**Ekoizpenean ere eragiten du?**

2004ko Espainiako Aurrekontu Orokorren onarpen legean xedapen gehigarri bat onartu zen gutxieneko ekoizpen orduak ezarriz: 32 ordu astean edo lau egunean, berdin tokiko telebista izan zein Telecinco izan. Tokiko telebistentzat zama ikaragarria da hainbeste orduko ekoizpena egitea. Jaurlaritzak pittin bat bigundu du puntu hori eta euskarazko tokiko telebistei 32 orduetatik 16 beste batzuekin ekoizteko baimena ematen die dekretuan.

**Exijitu egin nahi da Udalen tokiko telebistetan euskara maila handiagoa izatea izaera pribatua dutenetan baino. Nola uztartu hori audientzia lortzeko borrokarekin?**

Vocento eta Localiako telebistek erdaraz emititzen dute nagusiki; merkatuak horixe eskatzen ei du. Bada ordua euskaldunok beste exijentzia maila bat azaltzeko. Bitartean, errazagoa izango da euskara sustatzeko eginkizun hori administrazioari exijitzea. Gizartearentzat jasangarriak ez diren lanak administrazioak egin ditzala. Arazoa konpontzeko euskaldunok euskarazko telebista, irratia eta prentsa exijitu behar diegu enpresei. Nola egiten da hori?

**"32 orduko ekoizpen propioa exijitzen du legeak"**

**"Barrutiz kanpoko herrietan telebista ikusteko, Udalek eskaria egin beharko dute"**



**Edorta Arana** | EHUko irakaslea

## Gertuko telebista

Gaur egun tokiko telebistak egoera irregular baten daude. Tokiko telebistetan lehentasunezkoa da zerbitzu publikoa, normaltasun linguistikoa eta parte-hartze herritarra. Gertutasunak telebistaren edukiak baldintzatu beharko ditu. Ekimen pribatu baten telebista izan zein publiko batena izan, zerbitzu publikoa izatea da lehentasunezkoa. Programa propioez osatu behar du bere eskaintza, ikus-entzulearendako erreferentziazkoak izan behar dute eta entretenimenduzko telebistaren alternatiba izan behar dute. Gainera, normaltasun linguistikoaren aldeko ezinbesteko tresna izan behar dira tokiko telebistak. Barruti bakoitzean euskara hutsezko gutxienez telebista bat segurtatu beharko du tokiko telebistak arautuko dituen dekretuak. Tokiko telebistek euskara bultzatzeko ezinbesteko tresna dira, eta herriko kultura bultzatzeko ere bai.

Bestalde, dekretu horrek kontrol neurriak ere aurreikusi beharko ditu, batez ere, emisio lizentziak lortzen dituzten enpresa eta taldeek egiten dutena zaintzeko. Ezinbestekoa da emisioa, jabetza, publizitatea, kudeaketa, programazioa, edukiak eta perfil linguistikoaren baldintzak betetzen direla zaintzeko sistema normalizatuak sortzea.

## Jaurlaritza tokiko telebisten gainean egiten ari den dekretuaren punturik garrantzitsuenak

**• Hamabost barruti aurreikusten dira**

Eusko Jaurlaritzak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hamabost barrutitan emango ditu telebista lizentziak. Lehiaketa bidez egingo du. Urtarrilean aterako da dekretua eta lehiaketa ostean egingo da. Debagoiena eskualdea Mondragon izeneko barrutian aurreikusita dago.

**• Euskararen presentzia bermatuko da**

Udalek kudeatutako kateetan euskarazko programazioak gutxienez erdia hartu beharko du. Erakunde pribatuek kudeatutakoek, emisioaren hasieran bermatu beharko dute euskara euskaldunen indizearen %70 dela eta hamar urtetan, osotasuna bete beharko dute.

Zentzu honetan, subjektu pribatuek kudeatutako telebista kanalek zerbitzu-eremuari dagokion euskaldun indizearen baliokidea izango den euskarazko programazioa eskaini beharko dute gutxienez.

Euskaldun indizeari buruzko erreferentziak EUSTATen azken datuen arabera aplikatuko dira.

**• 32 orduko emisio propioa**

Espainiako legearen arabera, tokiko telebistek 32 orduko ekoizpen propioa izan behar dute gutxienez.

Jaurlaritzak, aldiz, gutxienez 16 ordukoa aurreikusten du eta beste 16 orduak elkarlanaren bitartez osatzeko aukera aurreikusten du.

Aurreko puntuarekin lotuta, euskal musika eta ikus-entzunezko produkzioak izango direla bermatuko da; halabeharrez, euskal autore eta abeslarien lanek emisio-denbora osoaren %10 hartuko dute.

**• Finantzazioari buruz**

Lizentzia eskuratzeko finantziazio-iturri hauek izan beharko dira: dohaintzak, laguntzak, irabazteko asmorik gabeko beste erakunde batzuei igorpen-leihoak lagatzea, eta hala badagokio, udalen, eskualde-mailako erakundeen eta bestelakoen dirulaguntza publikoak. Ez, ordea, publizitate bidezko finantziazioa.



# Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

## www.goiena.net-eko blog komertzialak

- Zure negozioko eskaintzaren berri sarean
- Euskarri merkea
- Emaitza onenak Google eta beste bilatzaileetan
- Erabiltzeko erraza

**Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:**
**www.goiena.net/blogak · azabarte@goiena.com · 943 76 92 70**

**www.goiena.net/blogak**

**/4quattro4**
**/argi-plastik**
**/arregi**
**/atai**
**/azkarate**
**/blogak/joseba**
**/BZ-sistemas**
**/dragon-oriental**
**/ezkutuorly**
**/gallastegi**
**/garaia**
**/guztizeder**
**/irudisport**
**/korozabaleta**
**/merkeopari**
**/multiopticas**
**/ohiak**
**/okipark**
**/vitoria**
**/pando**
**/udalatx**
**/udalaitz**

**Eta baita ere:**

**www.aizue.com**
**www.lilura.com**
**www.baster-alde.com**




**Goiena.net**
Debagoieneko Interneteko ataria

Ingeniaritza teknikoa ikasten ari zela atxilotu zuten, 2001ean. Hurrengo urtean ingeniari legez beharrean hasi zen, baina iazko udan laga behar izan du, Madrilgo Entzutegi Nazionalera joan beharra duelako hiru aldiz astero.

**XABIER ARREGI** | 18/98 AUZIAN AUZIPERATUA DAGO, EKIN-EN SUMARIOAN

# "Estortsio ekonomikoaz hitz egiten da, baina guk ere jasaten dugu"

Marijo Deogracias



M.D.

Xabier Arregi, 'Txapi' osintxuarra Goienan izan zen asteburuan.

**Gaur hasiko da berriz epaiketa eta deklaratzea tokatuko zaizu?**

Fiskalak bere garaian aurkeztu zuen zerrendari jarraituz, Xabier Alegria hasiko da deklaratzen, gero neu eta ondoren, Natale Landa.

**Urte berriarekin prozesuak beste martxa bat hartuko du?**

Auzi bakoitzerako agertzeko eskariari uko egin zion epaileak Gabon aurretik; hortaz, orain arte ezagutu dugun dinamikak jarraituko duela uste dut.

**Zer leporatzen dizuete zuri?**

Erakunde armatuko kide izatea. 12 urteko kartzela zigorra eskatzen dute. Akusazioarekin egin nahi dena da euskal disidentzia politikoa zigortu. Hau guztia txistea litzateke, ondorioengatik ez balitz; urteetako kartzela zigorrak daude atzetik.

**Eguenean bete ziren 29 urte Ordena Publikoko Epaitegia Entzutegi Nazional bihurtu zutela.**

Hainbat medioetan erakutsi den irudia karikatura baten antzekoa izan da, bai epaitegiarena zein itzultzaileena; baina azken baten gure defentsa eta hizkuntza eskubideak urratu dira. Frankismo garaiko tribunal batek, izena aldatutako tribunal batek, epaitzen gaitu. Orduko epaitegiak legez, Entzutegi Nazionalak ere euskal disidentzia politikoa zigortzen jarraitzen du: zigortzeko sortu zen epaitegia da.

**Nola daramazu egunerokotasuna?**

Erabat aldatuta. Epaiketak arautzen du nire egunerokotasuna. Ondorio pertsonal zuzenak jasan ditugu: astero 3 egun Madrilen egiteak, epaiketak iraun bitartean, ondorio zuzenak ditu. Lana laga behar izan dut eta 2001etik fidantzapean nago. Karga ekonomikoa kristorena da. Euskal Herrian estortsio ekonomikoaz aritzen gara, baina guk ere jasaten dugu hori. Gainera, Madrilera bueltaka aritzeak dakarren istripu arriskua ere jasan behar dugu.

**Elkartasuna igarri duzue?**

Ingurukoena bai, baina erakundeek utzikeria eta arduragabekeria galanta erakutsi dute. Azkarragaren bideokonferentziarena denbora irabazteko aitzakia bat baino ez da. Auzia erabat politikoa da eta emaitzak Euskal Herriko joko politikoa mugatuko du erabat.

**Eta dirua batzeko kanpaina nola joan da?**

Bonoak jarri genituen saltzen eta nik neuk, esaterako, nire ingurukoen artean banatu ditut. Elastikoak ere salgai daude. Baina horiek, azken baten, diru iturri oso txikiak dira kontuan hartzen badugu zenbat milioietaz hizketan ari garen.

**Zertan geratuko da prozesua?**

Egoera jakin bat, hau da, ziklo politiko jakin bat agortu denean izaten ari da epaiketa, baina oinarri erreala ere badago: gazteen kontrako epaiketan zigorrak egon ziren. Zentzu horretan, pentsaezina litzateke 98an hasi zen prozesua bertan behera geratzea, besterik barik.

**Hala ere, itxaropena ezin galdu.**

Egoera normalizatu baterantz pausoak eman nahi badira, itxaropentsu naiz, aukera badelako. Baina Entzutegi Nazionala zigortzeko sortu zen eta epaiketa erabat politikoa denez, Euskal Herriko joko-zelai politikoaren joko modua dago jokoan. Dena dela, epaiketa irabazi ala galdu, Euskal Herrian irabazteko bidea daukagu, epaiketak suposatzen duen bidegabekeria agerian geratu delako Euskal Herrian.

**"Akusazioarekin egin nahi dena da euskal disidentzia politikoa zigortu. Txistea litzateke, ondorioengatik ez balitz"**

**"Epaiketak defentsa eta hizkuntza eskubideak urratu dizkigu, karikatura itxura izan arren"**

**"Epaiketak suposatzen duen bidegabekeria agerian geratu da Euskal Herrian"**

# Mendigoia hotelak ateak zabaldu ditu asteon Eskoriatzan

*Torrebaso industria eremuan dago. 180 lagunendako lekua du eta jatetxea, kafetegia eta bilera gelak ere bai*

M.B.

Mendigoia hotelak ateak ireki ditu asteon Eskoriatzan. Hiru izar ditu eta Fagor Ederlan parean dago Torrebaso industria eremuan. Oraindik logeletako asko ez ditu ireki eta bilera gelak ere ez daude prest, baina jatetxea, kafetegia eta 17 gela zabaldu egin dituzte; baita erabiltzen hasi ere.

Zerbitzua, hortaz, eskaintzen ari da Mendigoia hotela eta hango kudeatzaileak Goienari esan dionez, oraingo astean logela dezente dituzte beteta; izan ere, asteon eskaintza berezia egiten ari da Mendigoia hotela.

**LOGELA BATZUK BETETA DAUDE, DAGOENEKO**

Guztira 180 lagunendako tokia izango du hotelak, 87 logelatan banatuta –horietatik bi ezinduendako izango dira–. Logelei dagokienez, arruntak eta luxuzkoak daude, eta enpresa bilerak egiteko gelak ere baditu lehenengo solairuan.

**ESKORIATZAKO LANGILEAK**

Langile gehienak herrikoak dira. Gaur egun diharduten 20 langileetatik %90 dira eskoriatzarrak eta gainerakoak inguruko herrietakoak. Bestalde, hoteleko kudeatzaileak esan du batik bat enpresa arloko bezeroak espero dituztela.



JOSETXO ARANTZABAL

Kafetegia, jatetxea eta hainbat gela zabaldu ditu hotelak.

• BERE EDUKIERAREN %94EAN DAGO URKULU



JOSETXO ARANTZABAL

**URKULUKO HUSTUBIDEA EZ DUTE ZABALDU**

Gipuzkoako urtegi guztietako konportak ireki dituzte, Urkulukoarenak izan ezik. Bere edukieraren %93,7an dago, eta pixka bat itxarotea erabaki dute. Oraingoz ez dute urtegia hustuko.

Azkeneko bolada honetan egin duen euriak eta elurraren urtze azkarrak eragin dute lurralde historikoan dauden beste zazpi urtegiak hustea; guztiak zeuden Urkulukoaren edukieratik dezente gorago. Urkuluko urtegia, iaz batez beste, bere edukieraren %91,8an egon zen. 1996an %99ra iritsi zen.

**BIESCASEKO SENTENTZIA KALERATU DUTE** | DEBAGOIENDAR BI HIL ZIREN UHOLDEAN

# Berandu, baina epaia eman delako pozik daude senideak

*Debagoiendar bi hil ziren ezbeharrean, Begoña Azkarate antzuolarra eta Patxi Mugertza oñatiarra. Kaltea itzulezina bada ere, azkenean erantzukizunak argitu direlako pozten dira senideak*

Jon Berezibar

Zorigaitza gertatu zenetik ia 10 urte beteko direnean, joandako abenduaren 21ean eman zuen jakitera Madrilgo Entzutegi Nazionalak Las Nieves campingeko ezbeharrari buruzko epaia. Epaileen erabakiaren arabera, Estatuak eta Aragoiko Gobernuak 11,2 milioi euro ordaindu beharko dizkiete senideei egindako kaltearengatik. Debagoieneko bi familia ukitu zituen ezbeharrak, Antzuolan eta Oñatin. Senideek adierazitakoaren arabera, "poztasunez" jaso dute epaia baina "galdutakoen hutsunea betetzerik ez dago". Epaiak ordain ekonomikoa ezartzen badu ere, administrazioko kargudunik ez da zigortu, nahiz eta eginbeharra ez betetzea eta utzikeria delituak ikusi diren. Hildako oñatiarraren senide batek honela azaltzen du: "arriskuaren berri izanda eta gauzak gaizki egiten zebiltzala jakinda campinga egiteko baimena eman zutenak egindakoarengatik ordaindu barik geratu dira".

Antzuolan Begoña ama galdu zuten Murgiondo sendikoek. Ander semeak, "behintzat ezbeharra ez zela hondamendi natural hutsa izan argi geratu da" dio "eta erantzukizunak egon badaudela".

**ABOKATUEKIN EGOTEKO ZAIN**
Behin epaia jakitera eman ondoren, aurki bilduko dira senideak abokatuekin, eta orduan egingo dute guztiaren balorazio zabala. Oraingoz kalte-ordainaren kopurua bakarrik jakin da eta familia bakoitzak 180.203 euro jasoko du zendutako kide bakoitzeko. Oraindik ez dute aditzera eman beste prozedurarik abiatuko duten etorkizunean.

**Epaiketan erantzukizunak argi geratu direlako pozten dira senideak**


J. B.
Begoña ama galdu zuen Ander Murgiondo antzuolarrak ezbeharrean.

## Kargu politikoek ez dute egindakoarengatik erantzun

**Behin sententzia jakinda, kargu publikoen erantzukizuna eskatzen dute senideek. "Ordain ekonomikoak ezarri eta gaia alde batera uztea oso pobrea da" Ander Murgiondo antzuolarraren iritziz. Izan ere, kargu publikoen arduragabekeria agerian geratu bada ere, inor ez da zigortua izan. Honela, "diru publikoarekin soluzionatu gura dute, baina benetako erantzuleak nortzuk izan diren ez da jakitera eman, eta eskubidea daukagu senideek horren berri izateko", dio Anderrek. Iritzi berekoak dira Patxi Mugertzaren senideak eta "honetatik ez dugula ikasi" gehitzen dute. "Ezbehar handi bat gertatuta ere gauzek berdin-berdin jarraitzen dute eta Biescasen gertatu zena bihar-etzi hemen edo beste edonon gerta daiteke", diote Mugertzaren senideek. Administrazioko inor inplikatu ez delako kexu dira.**

# Leihatila gabeko lehenengo bulegoa irekiko du Kutxak

*Eguaztenean zabalduko dute Bergaran leihatila bako Gipuzkoako lehenengo Kutxa*

Asteleheneko Goienkaria

Eguaztenean zabalduko dute Bergarako Simon Arrieta plazako Kutxaren bulego berritua. Leihatila bako bulegoa izango da eta era horretako Gipuzkoako bulego bakarra izango da gainera, Luis Abajo bulegoko zuzendariak aditzera eman digunez. "Lau bulego egongo dira Simon Arrietan, baina jendeari harrera egiteko leihatilarik ez da egongo. Ordea, bi kutxazain, dirua sartzeko makina bat eta Internet bidezko operazioak egiteko laugarren bat jarriko ditugu", gehitu du Abajok.

**FORMULA BERRIA**
Bulegoko zuzendariak azaldu digunez, "Kutxak formula berri hori Bergaran frogatzea erabaki du. Bezeroak ohitu egin beharko dira era horretara funtzionatzera. Hala eta guztiz ere, edozein arazo suertatzen dela ere, Kutxak baditu Bergaran beste hiru bulego gehiago: San Martin plazan, Fraizkozurin eta San Antonio auzoan, hain justu ere.

Bulego berritua eguaztenean irekiko dute Kutxako arduradunek. Gaur bertan egokituko dituzte makinak Simon Arrietako bulegoan, eta azkeneko atontze lanak egingo dituzte, eguaztenean zerbitzua ematen hasi ahal izateko.



M.D.
Simon Arrieta plazan dago bulegoa.

# Hil amaieran irekiko dute Epele-Kaskonategi bidea

*Lanak martxa onean doazela eta, iragarritako legez hil amaieran irekiko dute bide berritua*

Asteleheneko Goienkaria



JOSETXO ARANTZABAL

Jaiegunetan lan erritmoa jaitsi den arren, hil amaierarako amaituko dute.

Uztailean hasi zituzten Arrasatera bidean, Epeleko biribilgunea eta Kaskonategira arteko bidea zabaltzeko lanak. 860 metroko bide zatia urtarrilaren amaieran amaituta izatea espero dute Foru Aldundiko bideetako arduradunek. Horrela adierazi digute prentsa bulegotik: "lanak martxa onean doaz, jaiegun hauetan erritmoa moteldu bada ere. Dena dela, aurreikusitako moduan hil honen amaieran amaituta izatea espero dugu".

**AUTOBIDEA GARESTIAGO**

Urte berriarekin batera, AP 1 eta A8 autobideetako ordainsariak garestitu egin dira. Urtarrilaren lehenengotik Bergaratik Arrasaterainoko autobide zatia 0,50 euro kostatzen da ibilgailu arinendako.

**Prezioak**

| Nondik | Nora | Prezioa (euro) | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Bergara H. | Arrasate | 0,50 | Bergara H. | Donostia | 4,90 |
| Bergara I. | Bilbo | 4,10 | Arrasate | Donostia | 5,25 |
| Bergara H. | Bilbo | 4,55 | Bergara I. | Durango | 2,40 |
| Arrasate | Bilbo | 4,90 | Bergara H. | Durango | 2,85 |
| Bergara I. | Donostia | 4,45 | Arrasate | Durango | 3,20 |
| | | | Bilbo | Donostia | 6,85 |

# Bergarako Cespako langileek ez dutela greba egin argitu nahi izan dute

*Errege egunean kaleak zikin egoteko arrazoia ez da greba egin izana Cespako langileen esanetan. Euren jai eguna zela azaldu dute garbitzaileek*

Monika Belastegi

Errege egunean –eta baita urtarrilaren 1ean ere–, kaleak zikin zeudela esnatu ziren bergararrak. Garbitzaileak pasatu ez zirela nabarmena zen kontuan izanda –Errege bezperan, batik bat– jende asko ibili ohi izan dela gauez egun horietan.

Hori horrela, hainbat herritarren susmoa langileek greba egin zutela izan bazen ere, grebarik ez zutela egin azaldu dio ASTELEHENEKO GOIENKARIARI Cespa garbiketa zerbitzuko Felix Barrocal pertsonal delegatuak: "Gure hitzarmenak jasotzen du domeka eta jai egunetan ez dugula lanik egin behar, hau da, gure jai egun direla. Hori horrela, hilaren 1a eta hilaren 6a jai egun zirenez, guk ere jai izan genuen eta ez genuen grebarik egin kalean entzun ahal izan den moduan".

Orain arte, jai egun izan arren, zikin asko pilatzen den egun berezietan, –Errege eguna, esaterako–, lanera joan izan dira, txandaka, Cespako langileak: "Guk ere ulertzen dugunez garbiketa zerbitzua ahalik eta hoberena izan behar dela halako kasu berezietan lan egin izan dugu eta enpresak aparte ordaindu izan dizkigu ordu horiek".

**HITZARMENA NEGOZIATZEN**

Cespa enpresak eta langileek zuten lau urteko Lan Hitzarmena abenduaren 31n bukatu zen eta urtarrilaren 1etik Probintzia Hitzarmenari eutsi diote enpresak eta langileek. Hori horrela, hilabete eta erdi daramate langileek euren egoera hobetu nahian Probintzia Hitzarmenak dioenaren ildotik. Bi dira eskari nagusiak: lan orduen murrizketa (24 gutxiago) eta urtean libre hartzeko dituzten zapatuen kopurua gehitzea (16 dauzkate).




ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta SANYO etxetresnetan sekulako eskaintzak!
**Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.**



BERMEA 2 URTE
1.460 X 550 X 590 mm
B
HOZKAILUA **2FA255**
255 € 42.428 pta aspes



BERMEA 2 URTE
1.850 X 598 X 590 mm
B
HOZKAILUA **COMBI 2FAC495**
375 € 62.394 pta aspes



BERMEA 2 URTE
B
ONTZI-GARBIGAILUA **LEE-11**
270 € 44.924 pta edesa



BERMEA 2 URTE
1.400 b/min 7 kgr.
A+A
GARBIG. **XF7 1407 DG**
355 € 58.930 pta NEW POL



BERMEA 2 URTE
LABEA H2-1401BN
BITROZERAMIKA VAP1400
B
LABEA eta BITROZERAMIKA
298 € 49.583 pta aspes



BERMEA 2 URTE
TELEBISTA **SHARP**
**LCD 32" LC-32P50**
1150 € 191.344 pta



BERMEA 2 URTE
TELEBISTA **PLILIPS**
**LCD 26" 26-PF-4310**
899 € 899 pta



BERMEA 2 URTE
TELEBISTA **PLILIPS**
**LCD 20" 20PF-5320**
610 € 101.495 pta



ERRADIADOREAK
BERMEA 2 URTE
650 W . . . . 180 €
910 W . . . . 220 €
1170 W . . . 265 €
1430 W . . . 305 €

- **Bero urdina**
- **Programatzailea**
- **Termostato digitala**
- **Instalazio erraz eta azkarra**

cata




**Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.**
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoa 3, Roneo ondoan.

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34
Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK



JOSETXO ARANTZABAL

Maite Osa, Arrasateko Ibaiarteko presidentea, sariak iragartzerakoan.

# 'Arrakastatsutzat' jo dute Gabonetako kanpaina

*Bezeroen artean Mediterraneoan zeharreko bidaia zozkatu du aurtengo Gabonetan Arrasateko erdialdeko dendarien elkarteak*

Jon Berezibar

Aurreko urteetan baino Gabonetako kanpaina indartsuagoa egin gura izan dute aurten Ibaiartekoek eta jasotako erantzuna ere zabala izan da. Maite Osak, dendarien elkarteko presidenteak, kanpainan "sari benetan onak" banatu dituztela dio eta "arrakastatsutzat" jo du ekimena, "inoiz baino txartel gehiago jaso dira-eta aurten dendetan".

Zozketa zapatu arratsaldean egin zuten herriko plazan eta oraingo astean bertan ipiniko dira sarituekin harremanetan telefonoz.

**SARI POTOLOAK AURTEN**

Maite Osak aipatutako arrakasta horren giltza aurten banatutako sarietan dagoela aitortu zuen. Lehenak bi lagunendako bidaia eskuratu du astebetez Mediterraneoan zehar. "Gabonetako hau ilusio handiz egindako kanpaina izan da eta desiratzen gaude sariak aurrez aurre emateko", dio presidenteak. Hain zuzen ere, irabazleak jakinarazi bezain laster, datozen asteetan egingo da banaketa sari bakoitza egokitu den dendan bertan.

## Sarituak

| Saria | Emailea | Saritua |
|---|---|---|
| Mediterraneoan zeharreko bidaia | Zeziaga | Maria Luisa Elizburu |
| 500 euroko erosketa txartela | JG impresión | David Artzamendi |
| Asteburua Gaztainuzketan | Zeziaga | Mila Madinabeitia |

• EUSKAL PRESOAK ERE GOGOAN IZAN DITUZTE GABONETAN

### EGUENEAN ESKUALDEKO MANIFESTAZIOA EGIN ZUTEN BERGARAN

Euskal presoak ere gogoan izan dituzte Gabonetan ibarreko hainbat herritan, askotariko ekitaldietan. Eguenean eskualdeko manifestazioa egin zuten Bergaran hainbat lagunek *Euskal Presoak Euskal Herrira. Estatus Politikoa Orain!* lelopean.

Hitzordu horien artean zapatuan Bilbon egindako manifestazioa ere bazegoen. Debagoiendar askok egin zuten bat Ibaetako Foroak egindako deialdiarekin. Euskal presoen eskubideekin batera, gatazka konpontzeko presoei hitza eman behar zaiela nabarmendu zuten Bilbon batutakoek.




MARIJO DEOGRACIAS

# Erregeekin agur esan diegu Gabonei ohiko irudiei hutsik egin gabe

*Kabalgatak, umeendako jolas-parkeak eta umeak opari berriekin jolasean izan dira egunotako irudi nagusiak*

M.B.

Gabonen azken printzak sumatu ahal izan ditugu azkeneko egunotan: Errege Magoen Kabalgatak eguenean ibarreko ia herri guztietan, umeendako jolas-parkeak eta ibarreko neska-mutikoak jostailu berriekin jolasean. Horiexek Gabonei agur esateko moduak. Beherapenei, berriz, ongietorri egin diegu, izan ere, zapatutik neguko beherapenetan gaude.

Orain, berriz lanera edo eskolara, eta urtarrileko aldapari ahal den moduan eutsi behar.



KEPA OLIDEN

**JOLAS-PARKEAK.** Arrasaten, Oñatin, Bergaran... Umeendako jolas-parkeak ohiko bilakatu dira Gabonetan. Bergarakoaren kasuan, kiroldegian jarri dute eta gurasoak kexatu egin dira hotz handia egiten zuelako.



MARIJO DEOGRACIAS

**ERREGE MAGOAK.** Euria egin zuen, baina hori ez zen eragozpen izan eguenean Meltxor, Gaspar eta Baltasar gure herrietara iristekoak zirela eta umeak zain izateko. Goiko irudian Bergarako San Martin plazara heltzen daude errege Magoak.



JOSETXO ARANTZABAL

**JOSTAILU BERRIAK.** Bizikletak, urrutitik gidatutako ibilgailuak eta bideo jokoak izan omen dira Gabonetako izarrak. Asteburuan estreinaldi ona eman diete neska-mutikoek jasotako jostailuei; izan ere, gaur eskolara bueltatu beharra zegoen...


Prestatu GURE
merkealdian
Oinetakoak, moda, osagarriak... jar zaitez eroso,
eta zatoz merkealdi hornituenaz gozatzera.
22°
Tenperatura
Asialdiko
eta jatetxeetako
eskaintza zabala
Aparkaleku
estalia
el Boulevard
de Vitoria-Gasteiz
URTARRILAREN 7TIK AURRERA

ASTELEHENEKO GOIENKARIA
2006ko urtarrilaren 9a

Saray Leal bergararra aurpegi ezaguna egin zaigu *Gran Hermano*ri esker. Bergararrak 33 egun egin ditu etxe barruan. Barrez ikusi ahal izan dugu, lanean, garrasika, negarrez... eta Tomellosoko Jesusekin maitemintzen ere bai. Halaxe aitortu du berak, behintzat. Lehiaketa izugarri gustatu zaio, ez aldiz, etxetik atera osteko txutxumutxu saioetan parte hartu behar izana. Ez zaio etxean egindako ezer damutzen eta, nola ez, Jesusek irabaztea nahiko luke.

**SARAY LEAL** | 'GRAN HERMANO' SAIOKO LEHIAKIDEA

# "Oraingoz ez didate ezer esan, baina eskainiz gero Interviun aterako naiz"



ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Herrian, Bergaran, izan da Saray Gabonetan. Hori bai, eguenero Madrilera joan behar izan du Gran Hermano saiora.

Monika Belastegi

**Zer moduz *Gran Hermano*ko esperientzia?**

Oso ondo. Oso polita da, eta are gehiago jakinda jende askoren artean aukeratu zaituztela. Pentsa lehenengo elkarrizketan aurkeztutakoen %70 bota zutela eta hala ere, 80.000 pertsona pasatu ginela bigarren frogara.

**Zergatik aukeratu zintuzten zu?**

Ez dakigu zehatz. Esan digutena da ezberdina den jendea nahi zutela. Niri esan zidaten aukeratu nindutela bat nentorrelako aurten nahi zuten profilarekin. Oso garbi izaten dute nahi duten profila. Eta zer nolako profilak sartu nahi dituzten etxe barruan.

**Damu zaizu sartu izana?**

Ez, bueno, ez dakit. Ez dut gustuko mundu hau. Ez naiz damutzen etxean bizi izandako esperientziaz; bai, aldiz, etxetik irten eta gero datorrenaz.

**Zertaz?**

Parte hartu beharreko saioak, *A Tu Lado* eta halakoak. Guztia oso prestatuta dago. Saiootan egoten den kolaboratzaileetako bakoitzak gidoi bat dauka, bakoitzak paper bat egiten du eta oso neurtuta daukate guztia zu muturreraino eramateko, haserrazteko. Oso une latzak pasarazten dizkizute. Eta hori da, hain justu ere, merezi ez duguna. Gu, azken finean, lehiaketa baten parte hartzen dugun lehiakideak baino ez gara, eta etxetik ateratzean, badirudi mundu guztiak duela eskubidea zu epaitzeko.

Gainera, telebistan ez da ikusten lehiakideok etxean egindako guztia, zatitxo bat baizik: eurak erakutsi nahi izan duten zatia, hain justu. Hala, lehiakide bat ona dela erakutsi nahi badute, haren irudirik onenak emango dituzte; langile irudikatu nahi badute, bada, lanean... Ikusleen aurrean lehiakide bakoitzaren irudi jakin bat erakusten dute.

**Eta zure kasuan ze irudi eman dute?**

Nitaz ikusi direnak ez dira nik pentsatu bezain politak izan. Nik oso ondo pasatu dut etxe barruan. Eta erakutsi dituztenak, gehien bat, izandako haserreak izan dira. Oso ondo aukeratzen dituzte pasarteak.

**Etxe barruan egindako zerbaitegatik damutu zara?**

Ez, ezta kanpoan egindakoaz ere.

**Jesusekin oheratu izanaz ere ez, amari egindako errespetu promesa apurtuta?**

(Barreak) Ez. Amak halaxe eskatu zidan, baina sentimenduak tartean daudenean... Gainera etxe barruko egoera oso berezia da; lau pareten artean zaude, inorekin kontaktua izan barik... Dena da oso ezberdina. Amari eta amonari ez zaie gustatu Jesusekin oheratu naizela ikustea, baina oro har, oso harro daude egin dudan guztiarekin.

**Zu, behintzat, lotsatu zinen, etxetik kanporatu zintuzten gauean Mercedes Milak irudi horiek jarri zizkizunean.**

Bai, ikusi asko ez, baina entzun egiten zen eta lotsatu egin nintzen. Gainera, amona zegoen gau hartan platoan eta horrexegatik lotsa handia eman zidan.

**Jesusekin maitemindu egin zara?**

Leporaino, erabat. Ez nuen nik halakorik espero. Ikusi nuenean pentsatu nuen harro bat zela, gizon usteko bat, zangarra eta herri txiki batekoa, gainera. Baina oso bestelakoa da. Oso garbi berba egiten du, oso justua da, oso maitekorra...

Lehenengo begiradan eman dezake oso ezberdinak garela, baina ez da horrela. Bera ez da dirudien bezain antigoalekoa eta ni ere ez horren liberala. Oso ondo bat etortzen gara.

**Hortaz, Bergaran ikusiko zaitugu harekin pasioan.**

Bera atera bezain laster. Ni dagoeneko egon naiz Tomelloson, haren herrian. Aurreko asteko eguaztenean egon nintzen Jesusen familia ezagutzen. Herritarrek oso ondo hartu ninduten, jende izugarri pila hurbildu zitzaidan sinadura eskatzera eta gauzak esatera.

**Eta zure herrian, Bergaran, zer esan dizu jendeak?**

Ezer ez. Jendeak ez nau kalean geratzen. Hemen oso ezberdinak gara halako gauzetarako, lotsatiagoak akaso.

**Baina lagunek esango zizuten zerbait.**

Oso ondo ikusi nautela. Haiek beti animoak ematen.

**Zaren bezalakoa ikusi zaitugu telebistan?**

Ez. Ez dutelako irudikatu eman dituzten laburpenetan ni naizena. Nik ere irudiak ikusi ditudanean tuntuna naizela iruditu zait. Ikuslea izan banintz ni bezalako lehiakidea botatzeko bozkatuko nuke. Etxe barruan nengoenean burutik pasatu ere ez zitzaidan egiten modu horretan irudikatuko nindutenik.

Bestalde, ni etxean naizen bezalakoa izan naiz. Kontziente nintzen kamerak zeudela, baina ez nien kasurik egiten.

**Eta ikusleek zergatik uste duzu kanporatu zaituztela?**

Dayronekin gertatutakoarengatik. Lepotik oratu edo ez, auzi harengatik. Irudietan ez da ikusten oratzen nauenik eta horrexegatik inork ez dit sinetsi. Eta txutxumutxu saioetako kolaboratzaileek asko lagundu dute horretan.

**Jesusez gain, lagun onik egin duzu etxean?**

Raquel Abad eta Tono. Tonorekin ia egunero berba egiten dut. Oso ondo moldatzen gara. Inmarekin ere berba asko egiten dut eta oso jatorra da. Hartaz ere ez dute oso irudi ona eman. Maite, aldiz, ezin dut begi bistan ere izan. Jasaezina da, nazkagarria, nagia.

**Nork nahiko zenuke irabaztea?**

Jesusek. Eta ez diot nire bikotea delako. Kualitate asko dituelako, baizik. Hala ere, uste dut Raquel Lopezek irabaziko duela, txutxumutxu saioetan haren oso irudi ona ematen ari direlako.

**Asko aldatu da zure bizitza?**

Jendeak ezagutu egiten nauela, hori da aldaketa bakarra. Beste ezertan ez. Bestalde, eskaini ere ez didate egin, baina ez dut nire burua telebistan lanean ikusten. Nire nahia da egiten dudan diruarekin taberna bat zabaltzea Cadizen.

**Agian, Interviun ikusiko zaitugu, hortaz?**

Eskainiko balidate, bai. Gertatzen dena da aldizkariko zuzendaria aldatu egin dutela eta ez ei du gogo handirik. Baina eskainiz gero aterako naiz, *top-less* egiten dut hondartzan eta *robado* esaten diotena egin aurretik nahiago *Interviu*n atera.

**"Ez naiz damutzen etxean bizi izandakoaz, baina kanpokoa ez zait gustatu"**

**"Saioetako kolaboratzaileek oso gaizki pasarazten dizute askotan"**

**"Ikusleen aurrean lehiakide bakoitzaren irudi jakin bat erakusten dute; nahi dutena"**

**"Dayronek lepotik oratu ninduen ala ez, auzi horrengatik kanporatu naute etxetik"**

## Albiste izango da

**ESKORIATZA** | HILAREN 18RA ARTE

### Tranbiaren proiektua ikusgai dago eguenetik kultura etxean

Tranbiaren proiektua ikusgai dago eguenetik kultura etxean. Hilaren 18ra arte egongo da zabalik interesa dutenendako honako ordutegian: astelehenetik egubakoitzera 10:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara eta zapatu eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

Era berean, Oñatin luzatu egin dute tranbiaren erakusketa hilaren 23ra arte. Osoko bilkuren aretoan dago ikusgai astelehenetik egubakoitzera 09:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara ordutegian.

**OÑATI** | 20 LAGUNENDAKO TOKIA DAGO

### Alzheimer gaixoen sendikoendako ikastaroa antolatu dute, doan

Lahar elkarteak *Dementzia, Alzheimer* izeneko ikastaroa antolatu du (Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutakoa da eta Oñatiko Udalak finantzatutakoa). Ikastaroa zuzenduta dago Gerontologia arloan lan egiten duten pertsonei eta gaixoen senitartekoei. Urtarrilaren 16an, 17an eta 18an izango da ikastaroa, 17:00etatik 20:00etara, Oñatiko kultura etxean.

Informazio gehiagorako edo izena emateko deitu: 943 47 41 82 (Marian Goenaga) edo 665 71 86 95 (Pedro Bilbatua) telefono zenbakietara. Lahar elkarteak antolatutako *Dementzia, Alzheimer* ikastaroa doan da eta gehienez 20 lagunendako tokia egongo dela ohartarazi dute.

**ELGETA** | BALDINTZAK UDALETXEAN DAUDE IKUSGAI

### Babestutako etxeetan izena emateko epea hilaren 31ra arte

Torrealdean egingo dituzten Babes Ofiazialeko Etxebizitzetan izena emateko interesa dutenek urtarrilaren 31ra arteko epea dute beharrezkoa den dokumentazioa aurkezteko. Zozketa, berriz, maiatzean edo ekainean egingo dute, seguru asko, Udaleko iturriek esandakoaren arabera. Etxebizitzok eraikitzeko lanei dagokienez, Udalak iragarri zuen Gabonen ostean hasiko zirela; eta hasi eta gero 18 hilabeteko epean bukatuta egon beharko dira.

Udalak iazko abenduaren erdialdera onartu zituen babestutako etxebizitzon gaineko baldintzen pleguak, hainbat aldaketa egin eta gero. Baldintzen berri jakiteko udaletxera jo edo *www.elgeta.org* webgunera.

**BERGARA** | BIHAR, MARTITZENA AURKEZTUKO DUTE

### 'Berriketan' proiektua jarriko dute abian euskara taldeek asteotan

Udaleko Euskara Batzordeak, Udal euskaltegiak, Akulu-AEK euskaltegiak eta Jardun euskara elkarteak *Berriketan* proiektua jarriko dute martxan datozen asteotan. Euskaldun berriak euskaldun zaharrekin elkartuz, berba egitea errazten duen proiektua da; izan ere, erabiltzea da hizkuntza ondo ikasteko modurik onena eta proiektu horrek horixe ziurtatzen du: astean ordu batzuetan euskaldun berriak (euskaltegitik kanpo) euskaldun zaharrekin berriketan egotea. Bihar, martitzena aurkeztuko dute 12:00etan, kultura etxean.

**ELGETA** | KONTU KORRONTEA ZABALDU DUTE

### Parrokiako sakristiaren erreteila egiteko dirua batzen hasi dira

Parrokiako sakristiaren erreteila egiteko dirua batzen hasi dira elgetarrak. Oraingo zapatu eta domekako mezetan batutako dirua helburu horretarako erabiliko dute. Bestalde, kontu korronte zenbakia ireki dute Kutxan lagundu nahi duenarendako: 0105504443.

Bestalde, Udalak pertsona bat kontratatu nahi du, 11 eta 16 urte bitarteko gazteendako irekitzekotan den lokalaz arduratuko dena. Esperientziadun pertsona nahi dute, adinez nagusia eta euskaraz dakiena. Bihar, martitzena bukatuko da izena emateko epea. Horretarako jo udaletxera.

## Hitzorduak

**DEBAGOIENA** |

### 2006ko kirol txartel mankomunatuak egiten hasi dira dagoeneko

Dagoeneko eska daiteke eskualdeko kirol instalazioetan kirola egiteko txartela. Debagoieneko edozein kirol zerbitzutan eska daiteke.

Txartel mankomunatuaren prezioak ezberdinak dira baldintzen arabera. Adibidez, 18 urtez azpikoek, langabetuek eta ikasleek 86,80 euro ordaindu behar dute. 18tik gorakoek, 124,65 euro. Familia txartelak, berriz, 173,70 euro balio du. Arrasaten, ordea, aukeratu egin behar da kirol lehorretarako edo bustietarako txartela egin gura den. Biak egin gura izanez gero, 98,20 euro, 166,15 euro edo 256,90 euro ordaindu behar da, hurrenez hurren.




**ARAMAIO** |

**• Arabako Basogintza Elkartearen ordezkaritza**

Udalak esan gura die baserritarrei Arabako Basogintza Elkartea ordezkaritza jarri gura duela Aramaion. Asmoa da hilean behin-edo elkarteko ordezkariak udaletxera etorri eta baserritarrei zerbitzua ematea. Egutegia landu ostean jakinaraziko dute guztia.

**ARRASATE** |

**• Saharar errefuxiatuei laguntzeko deia egin du Nubik**

Saharara bidaltzeko atuna oliotan, azukrea eta konpresak bildu gura ditu Nubi elkarteak. Horretarako, ontziak jarri ditu herriko hainbat saltokitan. Saharar errefuxiatuei bidaltzeko dira produktu horiek. Laguntza ekonomikoa eman gura duenak ere Euskadiko Kutxan zabaldu duten kontu korrontean dirua sartuz lagun dezake.

**BERGARA** |

**• Bergarako kontuei buruzko foroa aurkeztu du Jardunek**

Foro honen helburua da Bergara, euskara eta teknologia berriak lotzea. Jardunen helbide elektronikoan dago foroa eta erregistratu egin behar da parte hartzeko. Bergarako kontuei buruzko helbidea da: *www.jardun.net*

**• Euskara Batzordeko egutegiak udaltzainek dituzte**

Herriko eta auzoetako etxeetan, dendetan zein baserrietan banatu dituzte Udaleko Euskara Batzordeak kaleratu dituen egutegiak, handiak eta txikiak. Hala ere, norbaiti iritsi ez baldin bazaio, Udaltzaingoan eskura daitezke.

**• Pol-Pol Mendizale Elkarteak datuak berritu gura ditu**

Pol-Poleko bazkide direnei deia egin diete, datuak berritzeko. Egun 1.700 bazkide inguru ditu, baina askoren datuak berritu beharrean daude. Pol-Poleko bulegoa astelehenetik eguenera dago zabalik, 19:00etatik 20:30era. Edozein argibidetarako deitu telefono zenbaki honetara: 943 76 48 51.

**• Sahararen aldeko elikagaiak biltzeko deialdia eskola umeei**

*Utzi ezazu zure arrastoa Saharan* kanpaina urtarrilaren 22ra bitartean luzatu dute eta eskola umeak hasiko dira Sahararen alde elikagaiak batzen. Bubisher elkarteak bultzatutako kanpaina da eta atuna, olioa eta konpresak batuko dituzte. Otsailean abiatuko da karabana Saharara.

**ELGETA** |

**• Herri Eskolan eguzki plakak jarriko dituzte**

Udalak eta Energiaren Euskal Erakundeak lankidetza akordioa sinatu dute energiaren arrazoizko erabilera eta energia berriztagarrien ustiapena sustatzeko. Aurtengo urtean eguzki plaka fotovoltaikoa jarriko dute, beraz, Herri Eskolan.

**LEINTZ GATZAGA** |

**• Saharara bidaltzeko jostailuak batu gura dituzte**

Saharar errefuxiatuei jostailuak bidaltzeko kanpaina zabalik dute Leintz Gatzagan. Jostailuak Saharara bidali gura dituen eskualdeko edozeinek Gatzagako plaza ondoan dagoen Labidea dendara eraman ditzake jostailuak, urtarrilaren 27ra bitartean. Dendako ordutegia da: 09:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara.

**OÑATI** |

**• Ugarkaldeko etxebizitzen zozketako oinarriak ikusgai**

Datorren otsailean zozketatuko dituzte Ugarkaldeko lehen etxebizitza babestuak. Zozketaren oinarriak udaletxean daude ikusgai. Urtarrilaren 18an bukatuko da oinarriei alegazioak jartzeko epea. Urtarrilaren 19tik aurrera, eskatzaileen zerrenda eskatuko dio Udalak Etxebideri.

**• Erabilitako olioa eta traste zaharrak jasotzeko egunak**

Datorren eguenean, urtarrilaren 12an, traste zaharrak jasoko dituzte ohiko puntuetan. Aurretik deitu behar da, ordea. Zapatu goizean, berriz, hilaren 14an, puntu berde mugikorra jarriko dute merkatu plazan erabilitako olioa jasotzeko.

# Iritziak



## Isilpekoak

**943 25 05 01**

**goienkaria@goiena.com**

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak... Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

**• Garagartzarainoko oinezkoen bide arriskutsua**

“Ez da gaurko kontua, aspaldiko aldarrikapena baita, baina Bilbon izandako auto-istripuak berriz ere gogorarazi dit eta tarte hau aprobetxatuta zera ekarri nahiko nuke txistuen tartera: Arrasateko Garagartzako auzotik Fagor-Garagartzarainoko bidean dagoen argi eta espaloi falta. Jende asko eta asko ibiltzen da bide horretan oinez egunero eta aipagarria da bide zati horretan espaloia etenda dagoela eta kale argiteriarik ez dagoela. Behin baino gehiagotan gertatu dira istripuak bide zati horretan eta ondo legoke, behingoz, horrelako gehiago gerta ez daitezen dagokionak neurriak jartzea. Espaloia eta argiteria behar-beharrezkoak dira hor!”.

**• Pilotan egin nahi dugu Bergarako pilotalekuan**

Bergarako hiru pilotazale gaztek txistua bidali digute erredakziora Bergarako pilotalekuan pilotan egiten lagatzen ez dietelako kexu. Diotenez, “beti jartzen digute aitzakiaren bat hango arduradunek eta ez digute pilotan jokatzen lagatzen pilotalekuan. Eta kontua da, bestelako lekurik izango bagenu, ez genukeela hainbestetan baimena eskatuko; baina euria egiten duenean, aterpean aritzeko dagoen pilotaleku bakarra herriko Udal pilotalekua da. Osterantzean Basalgora, Angiozarrera edo Osintxura joan beharra izaten dugu eta horretarako, euria egiten duenean, autoz eraman behar izaten gaituzte gure gurasoek. Inoiz baimena eman digute zapatila garbiak eramanez gero, baina gero, aldatzeko oinekotakoekin joanda ere, atzera egin dute arduradunek eta ez digute baimenik eman jokoan egiteko. Pilotazaleak gara eta pilotan jokatzea gustatzen zaigu, baina gure herriko pilotalekuaren arduradunek uste dute pilotalekua profesionalendako dela bakarrik”.

## Sarean harrapatuta

### Eskiatzeko zaletasuna

**Askok Gabonetako oporrak aprobetxatu dituzte eskiatzera joateko. Zaletasun garestia da, edo hori diote behintzat: eskiatzeko materiala, bidaia, lo egiteko lekua eta beste horrenbeste gastu sortzen ditu. Eta ez dago denen esku. Hala ere, badira beste asko astebukaera gehientsuenetan joaten direnak abendu inguruan hasi eta apirila bitartean. Urtero eskiatzera joaten zaren horietakoa zara?**

**ESKIATZEA EZ DA HAIN GARESTIA**

Eskia ez da hain garestia, badago aukera xuhurkerian ibiltzeko ere. Horretarako data eta lekua aukeratzen asmatu behar da, eta leku txiki eta deserosotan lo egiten jakin. Esaterako, Errege astean Luz Ardidenera joango naiz 4 egunetarako, 5 lagun apartamendu txiki batera, eta bakoitzari 140 euro kostatuko zaigu lo egin eta eskiatzea. Ez da hain garestia, ala?

eskiatzaile pobrea / www.goiena.net

**EGURALDI TXARRA EGINEZ GERO GARESTIA**

Ni ez naiz sekula joan eskiatzera eta ez dut inbidiarik sentitzen, gainera. Prezioak ere ez dakit nolakoak diren, baina nik behintzat, beti entzun dut garestia dela. 140 euro ordaintzeko moduko prezioa iruditzen zait, baina eguraldi txarra egiten badu, zer? Orduan garestia izango da denondako, ezta?

Ines / www.goiena.net

**DIRUA ZERTAN GASTATU AUKERATU BEHAR**

Eskiatzea garestia delako kontu hori desmitifikatzen joan behar dela uste dut. Egia da duela urte batzuk garestiagoa zela, baina gaur egun ez da horrenbesterako. Nik ez dut sekulako soldata irabazten, baina denboraldia zabaltzen dutenean ez dut eskiatzeko aukerarik galtzen.

Uste dut dirua zertan gastatu aukeratzea dela kontua. Eta nik, parrandan edota arropa garestia erosten gastatu beharrean, eskiatzen gastatzen dut. Beste barik.

Itziar / www.goiena.net

**ARROPA POLITA ERAKUSTEKO BIDEA**

Ni joan naiz noiz edo noiz eskiatzera, baina uste dut ez naizela gehiago joango. Jende guztiak erakutsi gura du ze ondo eskiatzen duen, baina batez ere ze arropa eta betaurreko *guay* duten, markakoak, modelo berriak eta kolore politak. Uste dut konpetentzia handia dagoela eskiatzaileen artean arropa-ren inguruan. Pijo batzuk direla uste dut, arropa politekin eta moreno jartzeko ez dakit ze krema ematen. Eski pista famatuetara joan beharrean hobeto ibiltzen naiz elurretan Anboton edo Txindokin, eta batzuetan baita fondoko eskiekin ere.

NikeGuay / www.goiena.net

**KOADRILAKOEKIN ETXEBIZITZA ALOKATU**

Bat nator Itziarrekin. Ez dut uste eskiatzera joatea horren garestia denik. Urteak joan, urteak etorri ekipoa osatzen joan naiz, polikipoliki. Bestalde, koadrilakoekin etxebizitza alokatzen dugu eta hala ez da egonaldia horren garesti ateratzen.

eskiatzailea / www.goiena.net

**FRIKI GUZTIAK JOATEN DIRA ESKIATZERA**

Urtean birritan baino ez naiz joaten eskiatzera, eta nahikoa daukat. Amorrarazten nautenak dira urte guztian dirurik ez dutelako negarrez egon eta neguan pisua alokatu eta eskiatzera joaten direnak. Eskiatzea garestia dela egia da, baina gero "friki" guztiak joaten dira.

Ainhoa / www.goiena.net

**TOPIKOETAN JAUSTEKO ARRISKUA**

Arropa politak, markako betaurrekoak eta beltzaran jartzeko kremak; frikiak eskiatzera… baina ze topikotzar dira horiek!. Eskiatzeko arropa egokiak erostea ez dut uste *guay* itxura egiten ibiltzea denik eta eguzkitik babesteko krema ematea ere ez. Gaur egun gura duen edozein joan daiteke eskiatzera.

topikoak / www.goiena.net

## Halaxe erantzun digute

Atrebentzia ez bada, zer eskatu diozu urte berriari, ezer eskatu badiozu behintzat

?



**EDU MURUAMENDIARAZ** | DANTZARIA

Osasuna lehenengo; bigarrenik inguruko eta munduko arazoak konpontzea; eta hirugarrenik, profesionalki, jendea dantzara zaletzea (uztailerako 3. ikuskizuna). Eguaztenean Kursaaleko dantza galan izan nintzen eta ikusgarria izan zen, baina, zoritxarrez, egun bateko kontua da.



**MAIDER EGUES** | KAZETARIA

Lanak iraun dezala, jakina. Apirilean hasiko dira bidaien programa berriak emititzen eta audientzia ona izatea nahiko nuke. Bestalde, loterian irabaztea nahiko nuke eta horretarako jokatzen hasiko naiz behingoz, badirelako diruaz bakarrik lortu daitezkeen gauza batzuk.



**JOSE MARI ZEZEAGA** | PILOTARIA

Osasuna izaten da garrantzitsuena eta ingurukoak ondo egotea. Osterantzean, mundua pauso bat aurrerago joatea, ditugun arazoak konpontze aldera. Eta pilotari dagokionez, urtebete egin dut kantxatik kanpo, eta nahiko nuke aurten lana ondo joatea eta pilotan jarraitu ahal izatea.



**JABIER RETEGI** | EUSKO IKASKUNTZAKO PTEA.

Bake urtea dela hainbatetan aipatzen den honetan pausoak ematen has gaitezen litzateke eskaria, hori baita garrantzitsuena Euskal Herrian. Eusko Ikaskuntzari dagokionez, asmo berri eta sendoak eman nahi ditugu eta horiek martxan jartzea ahalik eta ondoen.

## Egunkarietako harribitxiak




**HEGAN EGITEN IKASTEN**
Duela gutxira arte pilotu edo hegaldi-laguntzaile izan nahi zuenak Madrilera, Bartzelonara, Parisera... joan beharra zeukan. Orain, aldiz, ez. Aerolink Bilbaok aukera hori eskaintzen du. Martxoan ireki zuen eskola euskal pilotu talde batek, ikasketok egin nahi dituenak kanpora joan beharrik ez izateko. 35 ikasle daude gaur egun.

**'Zazpika'**
2006-01-08

**ZAMA OREKATZEKO PREMIA**
Neurrira egindako jantzia dirudite. Estuago edo zabalago, arinago edo astunago, finantza erakundeek ia edonoren ezaugarrietara egokituko diren maileguak eskaintzen dituzte gaur egun. Zerrenda luzatzearren, kontu korrontean diru gutxien dutenekin gogoratzen ari dira erakundeak, eta BBKk eman du azken ustekabea. 50 urterako lehen hipoteka kaleratu du 35 urtetik beherako gazteendako. Etxearen prezio osoa maileguz emateko prest dira, gainera; eta, epe luzeari esker, kuota "malguagoak" prest dituzte: nahi izanez gero, bezeroak soilik interesak ordainduko ditu bost urteko epean. BBKk dio, mailegu hori "eskaintza zabalaren beste osagai bat" dela. Iaz etxea erosteko maileguen erdia 35 urtetik beherakoekin hitzartu zuten.

**'Berria'**
2006-01-08




## Tira, tira...




**Montxo** 'Berria' | 2006-I-08

## Zorroztailea

# Ebay vs. Diogenes



*Gabon hauetan 50.000 espainiar baino gehiagok AEBetan oso bogan dagoen joerari eutsi diote: berriro saldu jasotako alferrikako opariak klik baten bidez, Interneten. Iaz, oparien %12 dendetan aldatu ziren, baina %60k armairuetan eta trastelekuetan bukatu zuten, sekula erabili barik. Espainian enkanteak egiteko lekurik erabiliena eta seguruena 'www.Ebay.es' dugu.*

**'El País'** | 2006-01-08

Juan Luis Azkarate

Gero eta opari gehiago egiten dugu Gabonetan: Olentzero dela, Erregeak direla, Gabon zaharreko lagun ezkutua…Gabon guztiak opariak egiten ematen ditugu, baina oso gutxitan asmatzen dugu aukeratutako opariarekin. Nori ez diote noizbait oparitu gehien gorrotatzen duen idazlearen azken best-sellerra, edo txiki gelditzen zaion jertsea? Gainera, sarritan zure bizilekutik kanpo dagoen denda batean erosi izan delako edo tiketa falta delako, aldatu ezinean gelditzen zara.

Diogenes-sindromea deitzen zaio etxean alferrikako gauzak gordetzeari; baina orain, Interneteko enkante-etxeei esker, aukera erreza dago dendan aldatu ezin diren gauzak beste pertsona ezezagun bati birsaltzeko.

Estatu Batuetan oparien %52 birsaltzen da Internet bidez. Espainian, beranduago etorri da Internet bidez gauzak saltzeko ohitura hau, baina poliki-poliki zabaltzen ari da opari okerrez libratzeko aukera hau. Aurten, honako hauek dira gehien birsaltzen ari diren opariak: sakelako telefonoak, mp3 aparatuak, ordenagailuen monitore estralauak, argazki kamera digitalak, bideokonsola eta bideojokoak eta markazko erropak. Baina ia edozein gauza sal daiteke Sarean.

Nik neuk, oraindik inoiz ez ditut erabili Ebay edo beste enkante-etxe horiek. Aurtengo Gabonetan, dena dela, oso zail ipini didate. Whisky botila ederra ekarri zidan nire lagun ezkutuak eta lehenengo egunean botila erdia edan genuen. Ez dakit zergatik, baina Ebaykoek onartuko ez didatelakoan nago.

**"Interneteko enkante-etxeei esker, aukera erraza dago dendan aldatu ezin direnak ezezagun bati birsaltzeko"**

**"Nik neuk, oraindik inoiz ez ditut erabili Ebay edo beste enkante-etxeok. Gainera aurtengo Gabonetan oso zail ipini didate"**

## Egunkarietan irakurri dugu

### 'Berria'

**PARTIKULARRAK**

Mena Aguadoren ustez, neurrigabekeria da autonomietako 'hizkuntza *partikularren*' ezagutza exijitzea. Aparte jaten emateko dira militarrak. Eta atzerriko destino bat dutenetan bertako hizkuntza ikastea normala bada, nik ondorioztatzen dut Kataluniak independentzia lortu zain daudela hango hizkuntza partikularra ikasten hasteko.

**Anjel Lertxundi**
2006-01-8

### 'Noticias de Gipuzkoa'

**HARENGA**

Seguruenik, Mena Aguado teniente jeneralak harenga kolpista bota zuenean, hori egiteko ahalmena zuela uste zuen. Berrogei urteko erregimen militarra oso gertu dago oraindik eta giro militar zaharkituenean halako izardun argidunak daude, zeinak uste duten euren mesias-egitekoa "Espainiaren defentsan" dela.

**Editoriala**
2006-01-08

### 'El Diario Vasco'

**KEZKA ETA DIZIPLINA**

Militarraren gehiegikeriarik ez zatekeen gertatuko estamentu militarrak ez balu izango gaur egun bizirik dagoen 'lurraldeeztabaidarekiko' kezka. Izan ere, eztabaida horrek ahalbidetu du –Estatuak eta konstituzioak berak mugatzen badu ere– hainbat ideia eta kontzeptu aztoragarri eta disolbatzaileen zirkulazioa.

**Editoriala**
2006-01-08

### 'Deia'

**GARRANTZITSUA ETA OSAGARRIA**

Menak 8. artikulua irakurri baino ez du egin. (...) Bera eta bera bezalakoak demokraziarendako kaltegarri dira, baina ez artikulua baino gehiago, eta Espainiako alderdi bakar batek ere ez du aipatu. Mena eta bera bezalakoak ez lirateke ausartuko ahotsa altxatzera ez balitz espainiar eskuinaldeak –PPri botoa ematen dion hori– txalotzen duelako.

**Editoriala**
2006-01-08

ASTELEHENEKO Goienkaria

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Erredakzioa** Marijo Deogracias, Jon Berezibar, Arantzazu Ezkibel eta Larraitz Zeberio.

**Jatorrizko diseinua** Goio Arana | **Maketazioa** Imanol Soriano | **Maketazio laguntzailea** Kepa Martelo | **Testuen zuzenketa** Karmele Etxabe | **Publizitate arduraduna** Gotzon Arzelus | **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe | **Harpidetza eta banaketa arduraduna** Marta Leturia | **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
**Presidentea** Estepan Plazaola
**Zuzendari nagusia** Iñazio Arregi

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# KIROLA

• Hamabost taldek hartu dute parte Errege bezperan Zubi Peñaren futbol txapelketan | 16
• Mugarri Alkesak garaipena lortu du igoera faseko lehenengo partiduan | 19

Pilota Eguna. Olalde elkarteak antolatuta 25 gaztetxo elkartu ziren Antzuolan | 17

**PREFERENTE MAILAKO TALDEAK**

MONDRA
## 1-2
TRINTXERPE

**Mondra** | Ander, Markel Gonzalez, Illart Etxeberria (Aritz Bereziartua, 90. min.), Kepa Mercader, Iker Laspiur, Ruben Rueda, Jon Alzola (Iban Garai, 70. min.), Josu Zubikarai, Julen Heriz (Julen Garmendia, 75. min.), Iker Lopez (Gotzon Urtzelai, 85. min.) eta Ander Bereziartua.

**Trintxerpe** | Auzmendi, Berasategi (G.Diaz, 60. min.), Solana (Escribano, 60. min.), Gonzalez, Goitisolo, Maraña, Iza, M. Diaz (Plata, 24. min.), Tomas (Garcia, 55. min.), Perez eta Mauleon.

**Golak** | 1-0 Iker Lopezek (46. min.). 1-1 Goitisolok (75. min.). 1-2 Garciak (86. min.).

**Epailea** | Iñaki Benavente. Lagun gutxi egin zituen Atxabalpen. Falten neurria ez zuen oso ondo neurtu. Bigarren zatian ez zuen Mondraren aldeko penalti argia adierazi.

**Bestelakoak** | Ikusle gutxi Atxabalpen. Bildutako ikusleak, ordea, oso sutsuak izan ziren neurketa osoan.

### Bikain

**Zubikarai eta Julen**
Ondo aritu ziren Mondrako bi jokalariak. Josuk ahalbidetu zuen Iker Lopezen gola. Julenek lan fina egin zuen, nahiz eta ate aurreko jaurtiketetan zorte txarra izan.

### Kaskar

**Zelaiaren egoera**
Partidu aurreko egunetako euriak bere eragina izan zuen Atxabalpeko zelaiaren egoeran. Lurra oso biguna zegoen, batez ere zelai erdiko inguruan. Jokalariek lan handia egin behar izan zuten

### Esandakoak

"Ondo jokatu dugu. Aukera asko sortu ditugu, baina ez dugu golik sartu. Horrek faktura pasatu digu partidu amaieran".

**ANDER RUIZ DE AZUA** | MONDRAKO ATEZAINA

"Pozik nago taldeak egindako partiduarekin. Zorte txarra izan dugu amaieran, baina emaitzak iritsiko dira".

**JOSE LUIS AZKARATE** | MONDRAKO LEHENDAKARIA




JOSETXO ARANTZABAL

Mondrako jokalariak behin eta berriz saiatu ziren Trintxerpeko atea zulatzen, baina baloiak ez ziren sartu.

**FUTBOLA** | TRINTXERPEK BUELTA EMAN ZION PARTIDUARI BERDINKETA LORTU OSTEAN

# Mondrak aukera asko sortu zituen baina gol bakarra sartu

*Zortea falta izan zitzaien Mondrako jokalariei ate aurreko jaurtiketetan. Aukerak sortzen bikain aritu arren, gol bakarra egin zuten etxekoek*

Larraitz Zeberio

"Hasiera motela izan dugu, baina baloiaren jabe izan gara lehen zatiko azken 25 minutuetan". Mondrako atezain Ander Ruiz de Azuaren hitzak dira norgehiagoka amaitu bezain laster. Nahigabetuta amaitu zuten zapatuko neurketa Igor Gordobilen mutilek. Lan asko eginda lortu zuten bigarren zati hasieran markagailua zabaltzea, baina Trintxerpekoek azken 15 minutuetan berdindu eta irabazi zieten.

**LEHEN ZATIAN NAGUSI**
Nahiz eta motel hasi, Mondrako jokalariek lan polita egin zuten neurketaren lehen zatian.

Hamaika aukera sortu zituzten, baina ez zuten lehen 45 minutuetan golik sartzerik izan. Trintxerpeko atezainaren lan onari ate aurreko jaurtiketetan Mondrako jokalariek izandako zorte txarra gehitu behar zaio. Julenek, Alzolak eta Laspiurrek aukera oso garbiak izan zituzten, baina baloiak, tematı, zutoinetatik ihes egiten zuen behin eta berriz.

Etxekoak izan ziren baloiaren jabe atsedenera arte. Trintxerpek nekez lortu zuen Mondraren areara hurbiltzea. Erasoan baino defentsan aritu zen gehiago kanpoko taldea.

**Etxekoak izan ziren baloiaren jabe garbiak atsedenera arte**

**Trintxerpekoek oso bestelako jokoa egin zuten amaieran. Erasoan ondo aritu ziren**

**BIGARREN ZATI ALDREBESA**
Merezitako gola lortu zuten bigarren zatia hasi bezain laster Mondrakoek. Iker Lopezek egin zuen Josuren pase bikain bati esker. Joko ona egiten jarraitu zuten Mondrakoek, nahiz eta epaileak aldeko penalti garbi bat ez adierazi eta jokoz kanpokoak behin eta berriz ikusi.

Amaierarako 15 minutu falta zirenean egin zuen berdinketaren gola Trintxerpek. Korner baten ondorioz izan zen, ate aurreko jokaldi nahasi batean.

Gola oso pizgarria ona izan zen kanpokoendako eta erasoan buru-belarri ahalegindu ziren aurrerantzean. Ondo aritu ziren Mondrakoak nabarmen behera egin zuten artean. Ezin esan 86. minutuan egindako gola merezi ez zutenik.



JOSETXO ARANTZABAL

Liderrari irabazi eta gero, Aloñak bigarren postuari eusten dio.

# Real Union liderra esku-hutsik joan zen Oñatitik

ALOÑA MENDI
**1-0**
REAL UNION B

**Aloña Mendi** | Elgarresta, Sanchez, Elgarresta, Igartua (Losada, 51. min.), Garai (Idigoras, 71. min.), Camino ( Aramendi, 92. min.), Arregi I (Henry, 71. min.), Zubia, Barrena, Astigarraga (Arregi II, 85. min.), Olalde.

**Real Union B** | Arabaolaza, Arregi, Aitor, Iban, Irazoki, Aizpurua, Ricardo (David, 30. min.), Idarramendi, Arrondo (Lasaga, 80. min.), Madariaga, Azpiroz.

**Golak:** 1-0 Jon Astigarraga (82. min).

**Epailea:** Ezkurdia jauna.

Arantzazu Ezkibel

Partidu bikaina jokatu zuten Oruetaren mutilek liderraren aurka domekan, Azkoagainen. Hasieratik buru-belarri atera ziren oñatiarrak golaren bila eta amaiera arte itxaron behar izan zuten arren, azkenean etorri zen gola.

**JOKALARIAK INDARTSU**

Lehenengo zatiko 30. minutuan, Xabi Camino eskumatik barneratu zen baina bere jaurtiketak atea gurutzatu zuen eta kanpora joan zen. Aukera ona izan zuen talde oñatiarrak markagailuan aurretik jartzeko.

Atsedenerako gutxi falta zenean, Jon Igartuak area kanpotik falta jaurti zuen, baina atezainak kornerrera bideratu zuen baloia. Atsedenera, beraz, husnako berdinketarekin iritsi ziren.

Bigarren zatian gauzak berdintsu izan ziren. 7. minutuan epaileak Real Unioneko Madariaga kaleratu zuen bigarren txartel horia erakutsi eta gero. Aloñak nagusitasuna aprobetxatu zuen eta 82. minutuan Jon Astigarragak partiduko gol bakarra sartu zuen. Buruz lortu zuen gola aurrelari oñatiarrak, Aratz Losadak alboko sakea atera ostean.

87. minutuan, epaileak Aloñaren aurkako penaltia adierazi zuen. Jon Ander Elgarresta atezaina bikain ibili zen eta irundarren jaurtiketa geratzea lortu zuen. Aloñak 38 puntu ditu.

# Aretxabaletakoek erraz irabazi zioten Ordiziari

UDA
**3-0**
ORDIZIA

A.G.

Hiru gol egin zituzten atzo Ibarran Felix Recioren mutilek. Ordiziako jokalariek oso gogor hasi zuten norgehiagoka eta sarrera nahiko bortitzak eginez.

Falta ugari egin zituzten eta epaileak txartel hori ugari atera zizkien. 21. minuturako jokalari bat gutxiagorekin gelditu ziren eta laster gola sartu zuen UDArendako Arriagak. Sei minutu beranduago epaileak Unamuno kaleratu zuen bi txartel hori adierazita.

Atsedenaren ondotik iritsi ziren UDAren beste bi golak. Lehena Erikorena ia zelai erditik. Oso polita. Bigarrena Joseba Gonzalezek egindakoa 62. minutuan. Ordiziak aukera gutxi sortu zituen.

## Emaitzak eta sailkapenak / Preferente maila

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Irun 1902-Anaitasuna | 3-0 |
| Berio-Hondarribia | 0-4 |
| Mondra-Trintxerpe | 1-2 |
| Allerru-Hernani | 0-2 |
| Zestoa-Zarautz | 0-2 |
| UDA-Ordizia | 3-0 |
| Touring-Mutriku | 2-0 |
| Pasaia-Beti Gazte | 4-2 |
| Orioko-Idiazabal | 2-2 |
| Aloña Mendi-Real Union | 1-0 |

**HURRENGOAK**

Orioko-Aloña Mendi
Pasaia-Idiazabal
Touring-Beti Gazte
UDA-Mutriku
Zestoa-Ordizia
Allerru-Zarautz
Mondra-Hernani
Berio-Trintxerpe
Irun 1902-Hondarribia
Anaitasuna-Real Union

**SAILKAPENA**

| | Puntuak | J | I | G | B | GA | GK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1.**Real Union** | **42** | 19 | 13 | 3 | 3 | 39 | 18 |
| 2.**Aloña Mendi** | **38** | 19 | 12 | 5 | 2 | 37 | 23 |
| 3.**Trintxerpe** | **37** | 19 | 11 | 4 | 4 | 36 | 24 |
| 4.**Ordizia** | **35** | 19 | 11 | 6 | 2 | 30 | 18 |
| 5.**Pasaia** | **34** | 19 | 8 | 1 | 10 | 34 | 22 |
| 6.**UDA** | **33** | 19 | 9 | 4 | 6 | 37 | 19 |
| 7.**Mondra** | **30** | 19 | 9 | 7 | 3 | 33 | 23 |
| 8.**Mutriku** | **30** | 19 | 9 | 7 | 3 | 27 | 26 |
| 9.**Zarautz** | **29** | 19 | 8 | 6 | 5 | 35 | 22 |
| 10.**Touring** | **27** | 19 | 8 | 8 | 3 | 28 | 28 |
| 11.**Zestoa** | **24** | 19 | 6 | 7 | 6 | 25 | 26 |
| 12.**Hernani** | **23** | 19 | 6 | 8 | 5 | 22 | 28 |
| 13.**Anaitasuna** | **22** | 19 | 6 | 9 | 4 | 18 | 25 |
| 14.**Berio** | **22** | 19 | 5 | 7 | 7 | 25 | 29 |
| 15.I**diazabal** | **21** | 19 | 4 | 6 | 9 | 23 | 31 |
| 16.**Hondarribia** | **20** | 19 | 5 | 9 | 5 | 22 | 32 |
| 17.**Orioko** | **17** | 19 | 3 | 8 | 8 | 21 | 37 |
| 18.**Irun 1902** | **15** | 19 | 3 | 10 | 6 | 21 | 36 |
| 19.**Beti Gazte** | **14** | 19 | 3 | 11 | 5 | 21 | 36 |
| 20.**Allerru** | **8** | 19 | 2 | 15 | 2 | 11 | 42 |

## Lehenengo terregionala

# Irabazi eta gero, Bergarak aurrean jarraitzen du

PEDRUSKO
**1-2**
BERGARA

Asteleheneko Goienkaria

Bergarak hiru puntuak eskuratu zituen Elgoibarren Pedruskoren aurka 1-2 irabazi ostean.

Partidua nahiko lasaia izan zen, aukera gutxikoa. Elgoibarko taldeak erritmo eta indar gutxiko partidua jokatu zuen eta bergararrak hasierako minutuetan erritmo horretara moldatu ziren.

**JOKO LASAIA**

Lehenengo zatiko jokoa lasaia izan zen. Baloia zelai erdian ondo mugitu zuten bi taldeek baina erasora gogor atera gabe. Lehenengo zatian, Bergarak 0-1ekoa lortu zuen Panasen bidez. Behin partidua alde zutela ikusita, bergararrek erritmoa jaitsi egin zuten eta lasaiago jokatu zuten. Atsedenera markagailuan aurretik iritsi zen talde mahoneroa. Bigarren zatian indar gehiagorekin jokatu zuten Josu Zubiaren mutilek. Elgoibartarrek banakoa lortu eta gero etorri zen bergararren joko ona.

Entrenatzaileak adierazi digunez, erdialdean presio gehiago egin zuten eta horrek bere fruitua izan zuen emaitzan. Azkenean, Martinek bigarren gola egin zuen.

**SAILKAPENEAN GOIAN**

Garaipen honekin, Bergara sailkapeneko 3. postuan dago 32 punturekin. Josu Zubiaren mutilek, datorren astean ere, etxetik kanpo jokatuko dute, Donostian.

## Emakumezkoen txapelketa



JOSETXO ARANTZABAL

**ALOÑA MENDIK 3-0 IRABAZI DIO AGURAINI**

Oñatiko neskek ondo jokatu zuten atzo, domeka, Ibarran. Aguraingo taldea ezer gutxi egiteko gauza izan zen Oñatiko futbol zelaian eta etxekoak 3-0 nagusitu ziren. Bestalde, Emakumezkoen txapelketan zapatuan jokatzekoa zen Bergara-Mondra derbia bertan behera gelditu zen Ipintzara epailerik agertu ez zelako.

ASTELEHENEKO
GOIENKARIA
2006ko urtarrilaren 9a

# Iruditan

• PEÑA ZUBI FUTBOL TXAPELKETA, ARETXABALETAN



LARRAITZ ZEBERIO

## LEHIATUAK IZAN ZIREN PEÑA ZUBI TXAPELKETAKO FINALAK ERREGE BEZPERAN

Hamabost talde aritu dira aurten nor baino nor Aretxabaletako Peña Zubi gaztetxoendako futbol torneoan. Errege bezperan jokatu ziren hiru finalak Ibarra futbol zelaian eta 93-94 urteetan jaiotakoen mailan Arrasateko Solano taldea nagusitu zen (irudiaren erdian). Sailkapena Atxabaltako, UDA, Deportes Livingston eta Are Txiki taldeek osatu zuten. 1995ean jaiotakoen mailan Joma taldea izan zen garailea (irudiaren ezkerrean) eta atzetik Madura, Solano, Leize Txiki eta Portaloi taldeak izan zituen. 1996an jaiotakoetan Solano taldea izan zen txapeldun (irudiaren eskuma aldean), Joma, Argi ibili eta Udapool atzean utzita. Atezain onenaren saria Ander Gilettok eskuratu zuen.

• ERRUGBIA, SENIOR MAILA



JOSETXO ARANTZABAL

## MONDRAK 24-13 GALDU DU

Irabazten hasi ziren David Jauregiren mutilak baina UPV-Bilbo taldeko jokalariak gehiago izan ziren. Lehenengo entsegua etxekoena izan bazen ere, laster egin zituzten bi Bilbokoek. Partidu polita egin zuten bizkaitarrek. Garagartzako zelaiaren egoera txarra bazen ere, jokaldi txukunak egin zituzten bizkaitarrek eta erraz nagusitu zitzaizkion bost bajaren zama gainean zeraman Arrasateko taldeari. Aurrealdean lan fina egin zuten bilbotarrek. Azkenean, 24-13 irabazi zioten Arrasateko taldeari.

• ARETO FUTBOLA, 1. NAZIONALA B



JOSETXO ARANTZABAL

## ESKORIATZAK BERDINDU EGIN ZUEN

Eskoriatzak etxean 5-5 berdindu zuen Donostiako Euskal Sofaren aurka. Bi taldeak sailkapeneko beheko postuetan daude; hori dela eta, urduritasun handiko partidua izan zen zapatukoa. Hasierako minutuetan kanpoko taldea indartsuago aritu zen eta markagailuan aurretik jartzea lortu zuten. Atsedenera 2-4 aurretik iritsi ziren donostiarrak. Bigarren zatian, Eskoriatzak bere lekua hartu zuen eta partidua berdintzea lortu zuten. Etxeko taldeko golegileak Jokin (3) eta Enrike (2) izan ziren.

• SASKIBALOIA



JOSETXO ARANTZABAL

## AINHOA LAZKANO SASKIBALOI TXAPELKETA

Legazpiarrak nagusitu ziren Ainhoa Lazkano VIII. saskibaloi txapelketan. Nesken arteko norgehiagoka Aloñak eta Legazpik jokatu zuten eta legazpiarrak 34-36 nagusitu ziren. Mutilek jokatutako hiruko txapelketan hauek izan ziren emaitzak; Aloña 50-Bergara 48, Legazpi 45-Bergara 27 eta Aloña 29-Legazpi 32. Saria, beraz, legazpiarrentzat izan zen. Partiduen ostean, sari banaketa izan zen. Antolatzaileak gustura geratu ziren Zubikoa kiroldegira hurbildu zen jendeak erakutsitako jarrerarekin.

Pilota Eguna Antzuolan

# Goiz eta arratsaldez aritu ziren frontoian nor baino nor Antzuolako 25 pilotari gazte

*Errege bezperan egin zuten bosgarren urtez Olalde elkarteak antolatutako Antzuolako Pilota Eguna*

Larraitz Zeberio




LARRAITZ ZEBERIO

Pozik erakusten dituzte jasotako dominak Antzuolako Pilota Egunean parte hartutako pilotari gazteek.

Antzuolako Olalde Euskal Kirolak elkarteak antolatuta Pilota Eguna egin zuten zapatuan herriko frontoian. Goiz eta arratsaldez aritu ziren nor baino nor elkarteko pilotari gazteenak. Guztira, 25 gaztetxo aritu ziren frontisaren aurrean pilotarekin beraien trebezia erakusten.

"Badira bost bat urte torneo txiki hau antolatzen dugula", adierazi digu elkarteko lehendakari Bittor Arbuluk. "Gabon giroko oporraldi honetan egiten dugu beti, umeek jaiegunak dituztelako. Pozik etortzen dira".

Zortzi eta hamalau urte bitarteko pilota eskolako 25 mutikok hartu zuten parte Pilota Egunean. Bakoitzak hiruzpalau partidu jokatu zituen, guztiak 12 tantotara. Antolatzaileek horrela erabakita ez zen txapelketarik jokatu.

**ARRATSALDEAN JAIALDI AMAIERA**

Arratsaldez bildu zen jende gehien Antzuolako pilotalekuan. Arratsalde hasieran gaztetxoen arteko azken norgehiagokak jokatu ziren. Jarraian, partidu polita ikusteko aukera izan zen, gazteak nagusien aurka.

**22-14 nagusitu ziren seniorrak arratsaldeko partiduan**

Binakako partidua izan zen eta Agirre-Biteri bikote seniorra 22-14 nagusitu zitzaien Mendizabal-Azkarate bikote gazteari. Partiduak nahiko hasiera berdindua izan zuen. Zortzigarren tantora arte eutsi zioten gazteek nagusien erritmoari. Hortik aurrera, ordea, erraz nagusitu ziren Agirre eta Biteri.

**Gazteen artean pilota bultzatzea da Antzuolako Pilota Egunaren helburua**

Partidu ostean sari banaketa egin zen Antzuolako pilotalekuan. Domina bana jaso zuten harro pilotari parte-hartzaile guztiek eta Pilota Egunari amaiera emateko merienda goxoa egin zuten denek Olalde elkartean.

**PILOTAK BEHERA EGIN DU ANTZUOLAN**

Antolatzaileak pozik agertu ziren Pilota Egunak emandakoarekin, baina herrian pilotak behera egin duela aitortu ziguten. "Umeak zazpi bat urterekin hasten dira pilotan eta astean egun bateko saioak egiten ditugu. Beste hainbat lekutan bezala 12 urtetik aurrera futbola aukeratzen dute gehienek". Pilota Eguna kirol hau herrian bultzatzeko antolatzen da.

Binakako txapelketa

# Juantxo Kokak itzelezko partidua egin zuen atzo Belokiren laguntzarekin

L.Z.

Kokak eta Belokik erosotasunez irabazi zuten atzo, domeka, Bergarako frontoian jokatu zen Binakako txapelketako lehen jardunaldiko azken partidua. Aurrez aurre zituzten Gonzalez eta Lasa III.a ezer gutxi egiteko gauza izan ziren Asegarceko bikotearen nagusitasunaren aurrean. 50 minutu nahikoa izan zituzten neurketa irabazteko. Azken emaitza 22-12koa izan zen.

Juantxo Kokak partidu bikaina egin zuen. Pilotari gipuzkoarrak ondo baino hobeto mugitu zuen pilota aurrealdean eta Ruben Belokik bikain lagundu zion atzealdean. Lehen urtea du Kokak pilotari titular moduan txapelketa honetan eta era oso onean estreinatu da lehian. Hasieratik bideratu zuten garaipena Asegarcekoek.

Aspe enpresako Gonzalez eta Lasa III.a ez ziren euren mailan aritu. Gonzalezek hasiera ona eman zion partidari. Hasi bezain laster bi tanto egin zituen sakez. Ondotik, ordea, ezinean ibili zen aurrealdean. Atzean, Burlatakoak erraz hartu zuen mendean Lasa III.a.

Merezitako garaipena eskuratu zuen Asegarceko bikoteak.

**IRUJO-EULATEK EZUSTEKOA**

Errege eguneko partiduan, aldiz, Aspeko pilotariek eraman zuten garaipena. Aurreikuspen guztiak apurtuz, Martinez de Irujok eta Eulatek 22-17 irabazi zieten Aimar Olaizola eta Zearrari. Irujo izan zen partiduko protagonista. Asko arriskatu zuen eta tanto oso politak egiten ikusi genuen. Aimarrek, aldiz, ez zuen bere maila eman. Atzean gauzak orekatuago agertu ziren Eulate eta Zearraren artean.

**GABONETAKO TXAPELKETA**

Eguberri egunean ere partidua izan zen Bergaran. Aspek antolatzen duen Gabonetako txapelketaren amaierako partidua 22-17 irabazi zuen Irujo-Pascual bikoteak Titin III-Eulate bikotearen aurka. Neurketa bizkorra eta ikusgarria izan zen. Iñigo Pascualen eskuinkadak ikustekoak izan ziren.




JOSETXO ARANTZABAL

Juantxo Kokak 3 tanto egin zituen sakez eta 10 bestela.

• LEHENENGO TERRITORIALA

# Oporren ostean itxura ona eman dute Ford Mugarrikoek

*Irabaztea lortu zuten, nahiz eta amaierako bi minutuetan lau jokalarirekin gelditu*



JOSETXO ARANTZABAL

Pello Olaberriak oso partidu ona jokatu zuen, erasoan, batik bat. Zazpi gol egin zituen.

FORD MUGARRI
**32-26**
ITE HONDARRIBIA

**Ford Mugarri** | Valle, Aranburuzabala, J. Eskibel (3), A. Eskibel, Garcia (3), Olaberria (7), Urrutia (1), Ortiz de Mendibil, Lonbide (2), Calleja (5), Alzelai (3), Isasmendi (3) eta Otegi (5).

**ITE Hondarribia** | Usabarrena (6), Ramirez, Sagarzazu (3), Maillo (6), Oiarbide (5), Roig (1), Gebara (4), Calderon, Tife (1) eta Elortza.

**Golak bost minuturo:** 2-3,4-3, 7-6, 11-8, 15-11, 18-12, 22-15, 25-18, 26-19, 28-21, 29-23 eta 32-26.

Larraitz Zeberio

Txukun jokatu zuten domeka goizean ITE Hondarribiaren aurka Andoni Arandoren mutilek. Lehen territorialeko talde motelenetarikoa da Hondarribia, baina hamar minutu behar izan zituzten Arrasatekoek markagailuan aurretik jartzeko. Bi taldeek partzial bera egin zuten bigarren zatian. Eskerrak, beraz, lehenengo 30 minutuetan sei puntuko aldea lortu zuten. Partidu amaieran bi minutuz lau jokalarirekin gelditzeak bere eragina izan zuen azken emaitzan.

**ATSEDENERAKO AURRETIK**

Arrasatekoek arazoak izan zituzten lehenengo hamar minutuetan golak egiteko. Defentsa lana hobetuz berdintzea lortu zuten eta markagailuan aurreratzea. Lehen zati amaierarako sei puntuko aldea zabaldua zuten Arandoren mutilek.

**ZAILTASUNAK AZKEN MINUTUETAN**

Bi taldeek gol kopuru bera egin zuten bigarren zatian, 14na tanto. Lan polita egin zuten etxekoek bigarren zatiko lehen minutuetan eta 8 goleko aldea zabaltzera iritsi ziren. Partiduaren 55. minutuan bi jokalari gutxiagorekin gelditzeak, ordea, bere eragina izan zuen azken emaitzan eta aldea bost puntura jaitsi zen azkenean. Partidu honetan aipatzekoa izan zen Pello Olaberria, Xabi Alzelai eta Ekaitz Aranburuzabalaren lana.

• 1. TERRITORIALA

# Bergarak ez zituen aukerak aprobetxatu eta galdu egin zuen

UROLA
**24-21**
BERGARA

Asteleheneko Goienkaria

Bergarak erasoan huts asko egin zituen eta horrelakoetan aurkariak ez du barkatzen. Bergarak 24-21 galdu zuen zapatuan Urolaren aurka.

**HASIERATIK ATZEAN**

Bergararrak partidu guztian atzetik izan ziren. Hasierako minututan Urola talde sendoagoa izan zen; kantxan ondo kokatuta atera zen etxeko taldea. Erasoko jokoan fin aritu ziren etxekoak. Bergara ahalegindu zen markagailuan aldea murrizten baina ez zuten lortu. Atsedenera 12-10 iritsi ziren aurretik etxekoak.

Lander Juaristi Bergarako delegatuak adierazi digunez, defentsan nahiko ondo aritu zen talde mahoneroa. 3-2-1 defentsa jokatu zuten eta emaitza onak izan zitizten. Erasoan izan zituzten arazoak bergararrek.

**4 PENALTI HUTS EGINAK**

Esan bezala, erasoan ez ziren fin aritu bergararrak. Jaurtiketa erraz asko huts egin zituzten eta guztira lau penalti sartu gabe geratu ziren. Beraz, erasoko jokoa hobetu beharra dute mahoneroek. Datorren astean sailkapeneko azkenaren aurka neurtu beharko ditu indarrak etxean.

• LEHENENGO TERRITORIALA

# Aloñak ezin izan zuen Usurbilekin

ARRIKRUTZ ALOÑA
**27-31**
USURBIL

**Aloña Mendi** | Zurutuza, Galarza (6), Arregi (1), Garcia, Pata (1), Bernal (5), Zulueta (8), Garcia (1), Garcia (5), Berrocal, Lizarralde eta Ugarte.

**Usurbil** | Orena (7), Aranburu, Urkia (4), Castro (4), Sarasola (3), Hernandez, Begiristain, Castro (2) Bengoetxea (4) eta Zugasti.

**Golak:** Atsedenean: 14-15, 18-15, 19-18, 20-20, 22-23, 27-31.

Arantzazu Ezkibel

Aloñak ezin izan zuen garaipen batekin hasi urtea. Usurbilen aurka partidu gogorra jokatu ostean, 27-31 galdu zuten oñatiarrek.

Lehenengo zatian joko ona egin zuen Iñigo Aranburuen taldeak. Defentsan ondo aritu ziren, usurbildarren erasoak ongi hautsiz. Ia denbora guztian aurretik ibili arren, atsedenera 14-15 galtzen iritsi ziren oñatiarrak. Bigarren zatian partiduak beste norabide bat hartu zuen eta epailea protagonista bihurtu zen.



JOSETXO ARANTZABAL

Aloñak erasoan joko ona egin zuen, batez ere lehen zatian.

**JOKO NAHASIA**

Esan bezala, epailearen lana gogor kritikatua izan zen Oñatiko zaleen artean. Haren erabakiek Aloñako jokalariak kaltetu zituzten. Azkenean Usurbilek aldea handitu zuen eta bi puntuek alde egin zuten Zubikoatik.

## Emaitzak

MAILAZ MAILA

| NESKEN EUSKADIKO TXAPELKETA | |
|---|---|
| Verkol Aloña | atsedena |

| LEHENENGO TERRITORIALA | |
|---|---|
| Urola Agip-Bergara K.E. | 24-21 |
| Ford Mugarri -ITE Hondarribia | 32-26 |
| Arrikrutz Oñatiko Kobak-Usurbil | 27-31 |

| BIGARREN TERRITORIALA | |
|---|---|
| Arrasate Esku Baloi | atsedena |

| GAZTE MUTILAK | |
|---|---|
| Bergara K.E. | atsedena |
| Aloña Mendi K.E. | atsedena |
| Gatz Museoa-Jakion | atsedena |

| GAZTE MUTILAK | |
|---|---|
| Araneta | atsedena |
| Mugarri Alkesa | atsedena |
| Aloña Mendi | atsedena |

| GAZTE NESKAK | |
|---|---|
| Arrasate E.B. | atsedena |
| Bergara K.E. | atsedena |
| Verkol-Aloña | atsedena |

| KADETE MUTILAK | |
|---|---|
| Aloña Mendi K.E. | atsedena |
| Gatz Museoa-Jakion | atsedena |

| KADETE NESKAK | |
|---|---|
| Bergara | atsedena |

• BIGARREN TERRITORIALA

# Berriro ere galdu egin du Eskoriatzak

*Partidua oso berdindua izan zen. Azken laurdena arte aurretik ziren eskoriatzakoak baina azkenean etxekoak aurreratu egin ziren*

UPV
**65-60**
ESKORIATZA

**UPV** | Bengoetxea (6), Dupis (6), Tere (6), Goñi (2), Garcia (5), Bengoetxea (14), Collado, Calvo (11), Oraa (5) eta Estormes.

**Eskoriatza** | Serrano (5), Laborda (4) , Caceres (2), Baltzategi, Murillo (10), Usabiaga (6), Soriano (2), Exposito (16), Etxeberria (10), Agirrezabalaga (4) eta Alarcia (1).

**Laurdenetako emaitzak:** Lehenengo laurdena 17-16. Bigarren laurdena 31-29. Hirugarren laurdena 43-44. Laugarren laurdena 22-16.

Arantzazu Ezkibel

Eskoriatzak partidu ona jokatu zuen arren, ohikoa den bezala esku hutsik etorri ziren Donostiatik Javi Corbalen neskak.

Entrenatzaileak adierazi digunez, partidua oso berdindua izan zen; emaitzak ere hori erakusten du. Donostiako taldeak, eskoriatzakoak bezala, jokalari gazteak zituen eta kantxako jokoan hori nabari egiten da.

Lehenengo laurdeneko 10. minutuan, 7-0eko partziala egin zioten eskoriatzarrei. Javi Corbalek esan digunez, lehenengo minutuetan jokalariak pixka bat galduta ibili ziren. Oporrak izan dituztela nabaritu egin zitzaien, erritmoa hartzea kosta egin zitzaien-eta.

### JOKOAN GORA EGIN ZUTEN

Partidua aurrera zihoan heinean eskoriatzarrek lekua hartu zuten kantxan. Defentsan ondo aritu ziren, aurkariei hutsunerik utzi gabe. Bigarren laurdeneko partziala 14-13 izan zen.

Hirugarren laurdenean gora egin zuten eskoriatzako neskek. 12-15eko partziala izan zuten alde. Defentsako lan onaz gain, erasoan ere ondo aritu ziren. Taula azpian ondo kokatu ziren eskoriatzakoak eta Yaizaren trebetasuna aprobetxatu zuten markagailuan aurretik jartzeko. Hirugarren laurdena amaitu ostean, 43-44 aurretik ziren eskoriatzarrak.

**Azken minutuetan egindako hutsak direla-eta galdu zuten partidua eskoriatzakoek**

### TIRO LIBREAK AURKA

Azken laurdenera oso berdinduta iritsi ziren bi taldeak. Azkenean, ordea, eskoriatzarrek ezin izan zuten aldea mantendu eta azken laurdenean behera egin zuten. Erasoko jokoan errebote asko hartu zituzten eskoriatzako neskek, batez ere Ixone Serranok. Errebote horiek saskiratzerakoan, berriz, ez ziren fin aritu eta huts asko egin zituzten. Taula azpiko jaurtiketetan asko hobetu beharra dute Javi Corbalen neskek.

Azken minutuetan, tiro libreak izan zituzten aurka eskoriatzarrek. Hori dela eta, donostiarrek markagailuan aldea handitu zuten eta amaierara 65-60 iritsi ziren aurretik.

Beste partidu batzuetan gertatu oi zaien bezala, eskoriatzarrak esku hutsik etorri ziren etxera. Datorren astean, ligako lehen buelta amaituko dute etxean eta gauzak asko ez badira aldatzen, azken postuan bukatuko dute ligako lehen buelta hau.



ARTXIBOA
Datorren astean ligako lehen buelta amaituko dute etxean.

• LEHENENGO MAILA

## Garaipena igoera faseko lehen partiduan

A.G.

Ondo hasi dute urtea Mugarri Alkesako mutilek. Zapatuan 86-94 irabazi zioten Zornotzako taldeari igoera faseko lehenengo partiduan.

Partidu oso serioa egin zuten defentsa lan bikaina eginez, eta Zurutuzaren mutilak hasieratik jarri ziren aurretik. Gamarraren hiruko saskiratzeak eta partidu amaierako Alarcia eta Quintanaren lan ona ezinbestekoak izan ziren Zornotzaren kantxan garaipen garrantzitsu hau lortzeko.

Musakolan jokatuko dute datorren asteburuan Askartzako taldearen aurka.

## Emaitzak

**MAILAZ MAILA**

| | |
|---|---|
| **LEHENENGO MAILA** | |
| Zornotza-Mugarri Alkesa | 86-94 |
| **NESKEN BIGARREN MAILA** | |
| UPV-Atletiko Sn Sn-Eskoriatza | 65-60 |
| **SENIOR MUTILAK** | |
| Candy B.K.E. | atsedena |
| Aloña-Mendi K.E. | atsedena |
| **SENIOR NESKAK** | |
| Aloña Mendi | atsedena |
| **GAZTE MUTILAK** | |
| Araneta | atsedena |
| Mugarri Alkesa | atsedena |
| Aloña Mendi | atsedena |
| **GAZTE NESKAK** | |
| Aloña-Mendi K.E. | atsedena |
| Eskoriatza K.E. | atsedena |
| **KADETE MUTILAK** | |
| Mugarri Alkesa Arrasate | atsedena |
| Aloña-Mendi K.E. | atsedena |
| **KADETE NESKAK** | |
| Eskoriatza K.E. | atsedena |
| Bergara | atsedena |



LEHENENGO MAILA

**ELOI MARTEATXE** | ARRASATEARRA, ATHLETICEKO BAZKIDE KONPROMISARIOA

# "Realarendako infartuzkoa izango da hurrengo derbia"

Xabier Urtzelai

**Zapatuan Athleticek galduta, domekan berdin egiten da lan?**

Egia esateko, atzo eguerdian Realeko zale gehiago izan nituen tabernan, adarra jotzera etorri ziren-eta. Ilunkeran, berriz, Realak galdu egin zuen eta lasaiago ibili nintzen. Zirikatu egiten diet bezeroei, eta eurek ni, noski.

**Gaizki hasi du talde zurigorriak urtea: Real Madril lehenengo, eta Deportivo gero.**

Beno, gaizki hasi baino, orain arteko boladari eutsi diogu. Joko aldetik hobera egin dugula esango nuke, baina zorteak ez digu laguntzen. Kontrarioek askoz ere gehiago egin barik irabazten gaituzte. Eguenean posible da Madrili Bernabeun irabaztea.

**'Date el Bote' saioan irabazi berri duzunarekin, behintzat, datorren urteko abonua ordainduta.**

Zerbait geratzea espero dut, Athleticeko bazkide izateko ez da-eta horrenbeste ordaindu behar. Bi mila euro inguru irabazi ditut 'Date el Bote'-n, baina haziendak 300 euro inguru kenduko dizkit. Eta, San Mamesko harmailan egotearren 600 euro ordaintzen ditut, hortaz...

**Bigarren itzuliko derbiak ez dira nolanahikoak izango.**

Derbiak normalean ez dira nolanahikoak izaten, baina Realak eta Athleticek 15 egun barru jokatuko dutena infartuzkoa izango da, baina Realarendako. Guk ez dugu atzerago egingo. Baina, Reala dagoeneko hasi da atzeko postuetara gerturatzen...

**Eta kontrara, Bartzelona hasi da aldea eskuratzen.**

Egiten duten jokoagatik bada, eurak izango dira aurtengo txapeldunak. Real Madrilaren norgehiagoka ikusten nabil orain momentuan, eta egia esan... Gainera, Bartzelona ez da lasaitzen, kontrarioa gainean izango balu moduan jarraitzen du. Eskerrak datorren astean guk jokatuko dugula euren kontra, eta Bartzelonaren atzetik doazenei mesede egingo diegula.

**Osasunak eutsiko dio erritmoari?**

Talde nafarrak dagoeneko egin du oraingo denboraldian egin beharrekoa, mailari eustea. Ez dirudi Agirreren taldeak beherakada nabarmenik egingo duenik, eta aukera handiak ditu UEFA-n sailkatzeko.

Txapeldunen Liga beste kontu bat da, hori gaitzago ikusten dut nik.



JOSETXO ARANTZABAL

Arrasateko Kimetz tabernan egiten du lan Eloik.

**"Datorren astean mesede egingo diegu Bartzelonaren atzetik doazenei"**

## Harmailatik



# Real berrian, lana egiteko

Xabier Urtzelai

**Nihat barik.** Kontu horri eman diote garrantzia aste barruan kirol egunkariek, Realak Nihat barik garai berria hasiko duela. Amorrortuk aurreratu zuen Nihatek ez zuela Galiziara bidaiatuko, ez zuelako jokatzeko moduan ikusten. Hori egia bada, txarto behar du turkiarrak, ikustekoa izan zen-eta atzo Balaidosen zelairatu zirenek egindakoa. Kontuak kontu, agur esan du horrenbeste poztasun eman duen Nihatek. Zorte on aurrerantzean ere.

**Baloia galdu.** Eta errazegi; horixe egin zuten behin eta berriro atzo Realeko jokalariek. Atzealdetik hasita, zelai erdian egindako hanka-sartzeetaraino. Deigarria da, besteak beste, Garitanok 17 alditan galdu zuela baloia. Bere alde esango dugu baloi gehien errekuperatu zuen txuri-urdina izan zela (11). Garitanorekin batera, taldearen bizkarrezurra osatu zuen Mikel Alonsok ere ez zuen arratsalde biribila izan. Tolosarrak dei egin diezaiola anaiari, horrek ederki hasi du-eta urtea. Xabi Alonsok egindako bi golei esker Liverpoolek markagailuari buelta eman, eta 3-5 irabazi zion Luton-i, Kenilworth Road-en. Realera itzulita, atzo jokoa antolatzerakoan ezinka ibili baziren, deigarria izan zen bigarren zatiko 38. minutuan, Gustavo Lopez eta Placente erasoan zebiltzanean txuri-urdinek egindako presioa: Celtakoak oinez zebiltzan. Badago zer hobetu, bai, Realaren garai berrian.

**Atezainak.** Euretako batzuek ederto hasi dute urtea. Zapatuan, Kamenik egin zuen Bartzelonaren kontra lehenengo hanka-sartzea. San Mamesen, berriz, mahatsa batzera irten zen Molina, baina Aranzubiak erakutsi zuen, geroago, Deportivoko atezaina amateurra dela.

▲

**Agirretxeren 15 minutuak**

Realaren norgehiagoka ikusita, eta Athleticen eta Alavesen egoerari erreparatuta, gaitza da ezer positiborik bilatzea. Agirretxek jokatutako 15 minutuekin konformatuko gara.

▼

**Euskal taldeen jarduna**

Realaren gainean egin dugu berba, baina gainontzeko talde euskaldunek ez dute urtea hobeto hasi. Osasunak egin du zerbait: Racingen kontra bana, non eta "Nafarroako erreinuan".

## Emaitzak eta sailkapenak / Espainiako Liga Txapelketa

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Atletico-Valentzia | 0-0 |
| Osasuna-Racing | 1-1 |
| Mallorca-Betis | 1-1 |
| Alaves-Zaragoza | 0-2 |
| Celta-Reala | 1-0 |
| Cadiz-Getafe | 1-0 |
| Sevilla-Malaga | 3-1 |
| Vila-real-R.Madril | 0-0 |
| Athletic-Deportivo | 1-2 |
| Espanyol-Bartzelona | 1-2 |

**HURRENGOAK**

- Valentzia-Osasuna
- Betis-At. Madril
- Zaragoza-Mallorca
- Deportivo-Alaves
- Bartzelona-Athletic
- Reala-Espanyol
- Getafe-Celta
- Malaga-Cadiz
- R. Madril-Sevilla
- Racing-Vila-real

**SAILKAPENA**

| | Puntuak | J | I | G | B | GA | GK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. **Bartzelona** | **43** | 18 | 13 | 1 | 4 | 45 | 15 |
| 2. **Osasuna** | **39** | 18 | 12 | 3 | 3 | 26 | 17 |
| 3. **Valentzia** | **32** | 18 | 9 | 3 | 6 | 26 | 17 |
| 4. **Deportivo** | **32** | 18 | 9 | 4 | 5 | 26 | 17 |
| 5. **Vila-real** | **31** | 18 | 8 | 3 | 7 | 25 | 16 |
| 6. **R.Madril** | **30** | 18 | 9 | 6 | 3 | 29 | 19 |
| 7. **Sevilla** | **29** | 18 | 8 | 5 | 5 | 20 | 14 |
| 8. **Celta** | **29** | 18 | 9 | 7 | 2 | 19 | 21 |
| 9. **Zaragoza** | **24** | 18 | 7 | 4 | 9 | 22 | 22 |
| 10. **Getafe** | **24** | 18 | 6 | 8 | 3 | 23 | 24 |
| 11. **Reala** | **21** | 18 | 4 | 9 | 3 | 26 | 35 |
| 12. **Atletico** | **20** | 18 | 4 | 6 | 8 | 18 | 19 |
| 13. **Racing** | **20** | 18 | 4 | 6 | 8 | 15 | 21 |
| 14. **Espanyol** | **18** | 18 | 4 | 8 | 6 | 16 | 23 |
| 15. **Malaga** | **17** | 18 | 4 | 9 | 5 | 23 | 26 |
| 16. **Cadiz** | **17** | 18 | 4 | 9 | 5 | 12 | 21 |
| 17. **Mallorca** | **17** | 18 | 4 | 9 | 5 | 17 | 29 |
| 18. **Betis** | **16** | 18 | 3 | 8 | 7 | 14 | 25 |
| 19. **Athletic** | **15** | 18 | 3 | 9 | 6 | 19 | 25 |
| 20. **Alaves** | **12** | 18 | 2 | 10 | 6 | 14 | 29 |

**Kiniela**

**KINIELA**

| | |
|---|---|
| 1. **Vila-Real-R.Madril** | **X** |
| 2. **Sevilla-Malaga** | **1** |
| 3. **Cadiz-Getafe** | **1** |
| 4. **Celta-Reala** | **1** |
| 5. **Athletic-Deportivo** | **2** |
| 6. **Alaves-Zaragoza** | **2** |
| 7. **Mallorca-Betis** | **X** |
| 8. **Atletico-Valentzia** | **X** |
| 9. **Osasuna-Racing** | **X** |
| 10. **P.Ejido-Valladolid** | **X** |
| 11. **Murtzia-Murtzia H.** | **X** |
| 12. **Albacete-Hercules** | **1** |
| 13. **Gimnastic-Xerez** | **2** |
| 14. **Recreativo-Numantzia** | **X** |
| 15. **Espanyol-Bartzelona** | **2** |

## Euskal taldeen asteko hamaikakoa



Prentsa albiste asko ematen ari da azkenaldian Aitor Elkoro atzelari elgetarraren etorkizunaren bueltan. Duela astebete urtebeterako berritu zuela zabaldu zen. Asteon, berriz, Aspe enpresak ez duela Debagoienakoarekin berrituko. Etxean aurkitu dugu pilotaria festa egun hauetan eta harrituta agertu da albiste hauekin. Pilota profesionalean jarraitzeko asmoa duela azaldu digu eta, momentuz, ez duela Aspe enpresarengandik asmo hauen kontrako inongo notifikaziorik jaso.

**AITOR ELKORO** | PILOTARIA

# "Ez dakit berrituko dudan ala ez baina Aspe enpresak ez dit kontrako albisterik eman"

Larraitz Zeberio

**Zabaldu da otsailaren 22an kontratua amaitzen zaizula Aspe enpresarekin. Zure etorkizunari buruz zerbait aurreratzeko moduan zara?**

Nire asmoa jarraitzea da. Badakit nire kirol ibilbideko momenturik zailena dela. Aurten nahiko urte kaskarra izan dut. Urte hasieran arazo batzuk izan nituen eskuekin eta erdipurdi ibili nintzen bizpahiru hilabete. Kasualitatea izan da ere joan zen urteko azaroan hatz txikia apurtu nuela... Tira, nire momenturik onenean ez nago, baina jarraitzeko ilusioa badaukat eta asmoa ere bai.

**Beste zenbat denboraldi egiteko prest ikusten duzu zure burua?**

Ez dakit. Ahalik eta gehien. Badakit hankak lurrean eduki behar ditudala eta urtez urte joaten naiz. Enpresak zer nahi duen ere garrantzitsua da. Nire beharra ikusten badu jarraituko dut eta bestela ez. Ez dakit berrituko duten ala ez, baina berba egingo dugu. Oraingoz, enpresak niri ez dit inongo notifikaziorik egin. Harrituta nago prentsan agertutakoarekin.

**Prentsan denetik irakurtzen ari gara zuri buruz. Nola hartzen dituzu horrelakoak?**

Duela astebete irakurri nuen urtebeterako berritu nuela. Orain, erretiratzekoa naizela... eta nik ez dakit ezer. Denetik entzuten da baina egia da enpresatik ez daukatela batere notifikaziorik eta momentuan ez dakidala ezer.

**Hamahiru urteren buruan gozatzen duzu oraindik ere frontoietan?**

Onartu behar dut gero eta zailagoa egiten zaidala bai entrenatzea eta bai jokatzea, baina hori kirol legea da. Ez nago nire momenturik onenean, baina gozatu dut urte askotan eta espero dut oraindik ere gozatzea urte askotan.

**Zer suposatu du zuretako Aspe enpresak?**

Ibilbide berri bat. Lehen Asegarcen nengoen. Eskaintza bat onartu nuen Aspen eta oso gustura egon naiz urte hauetan. Jarraitzea espero dut eta gustura bukatzea.

**Gertatutakoa gertatu pilotaren munduan jarraituko duzu zure ustez?**

Ez dut horrelakoetan pentsatzen. Pilotaz aparte nik beste lan bat daukat Antzuolan eta goizero egiten dut beharra.

Nire asmoa da ahal badut, behintzat, jokatzen jarraitzea eta bestela nire lanarekin jarraitzea. Oso gustura nago beste lan honetan ere eta oraingoz ez daukat bestelako gauzarik buruan.

> **"Ez nago nire kirol ibilbideko unerik onenean, baina pilotan jarraitzeko ilusioa eta asmoa ditut oraindik"**

> **"Harrituta nago prentsan irakurritako berriekin, enpresak ez baitit inolako berririk eman"**

**Pilotari baten urterik onenak beti dira tituluak lortzen diren urteak?**

Bai. 1996an Euskadiko txapelketa lortu nuen eta aurreko beste bi urteak oso onak izan ziren. Nire kirol mailarik handiena urte horien bueltan eman nituen. Nire kirol sasoirik onena hor eman nuen, 27 urtetik 32ra.

**Aldatu da pilota orduz geroztik?**

Ez dut uste. Nire ustez Asegarce pilota munduan sartzea aldaketa handia izan zen bai telebista sartu zuelako eta pilotari buruzko beste irudi bat eman zitzaiolako. Aldatu dira pilotariak. Ni hasi nintzenean beste pilotari batzuk zeuden goian eta orain beste batzuk daude.

**Eta hobeak dira?**

(Barre). Eztabaida hori oso zaila da. Pilotari nagusiekin berbetan hasi eta esaten du gu baino lau bider gehiago jokatzen zutela. Gauza asko aldatu dira, frontoiak, materiala, prestaketa fisikoak... Nik beti esaten dut lehengo onak orain ere onak izango zirela eta alderantziz.

**Zeintzuk dira zure pilotari gustukoenak eta zergatik?**

Nire iritziz Titin izan da aro bat markatu duena, gehien bat nire urteetan eta orain momentuan onena zati bategatik Aimar Olaizola da. Konpletoena behintzat.

**Publiko artean ere egoten zara frontoietan?**

Gustatzen zait beste pilotariak ikustea eta saiatzen naiz frontoietara joaten.

**Eta tabakoaren legearekin, zer gertatuko da frontoietan?**

Nik uste dut ez dela tema honekin hainbeste dramatizatu behar. Beste leku batzuetan ere ezarri dute hau. Kolpera horrelako lekuetan tabakoa uztea oso zaila da baina nire ustez denborarekin denok kontzientziatuko garela eta ez dela arazo handirik egongo.

**Keak traba handia egiten dizue?**

Egun handietan bai. Frontoia beteta dagoenean kalte egiten du, baina nik uste dut erretzaileek ere hori horrela dela onartuko dutela.

**Zure eskaera estreinatu berri dugun 2006rako?**

Pozik bizitzea. Ez dut gehiago eskatzen ez baita gutxi.



JOSETXO ARANTZABAL
Aitor Elkorok 13 urte daramatza pilota profesionalean, zortzi Asperekin.

## Labur

**KROSA** | NAZIOARTEKO TXAPELKETA AMOREBIETAN

### Markel Blanco lasterkari arrasatearra bikain ibili zen eta hirugarren sailkatu da

Markel Blanco gazte mailako lasterkari arrasatearrak marka bikaina egin zuen atzo, domeka, Amorebietako LII. Nazioarteko Kros txapelketan. Debagoieneko lasterkariak 6.500 metroko lasterketa egin zuen eta proba amaitzen hamargarren lasterkaria izan zen, gazte mailako hirugarrena. "Oso pozik nago egindako lanarekin", aipatu digu Markelek. "Onartu behar dut pixka bat luzea egin zaidala lasterketa baina ondo ikusi dut nire burua eta uste baino marka hobeagoa egin dut azkenean". Aurkari asko eta oso onak zituen Markelek atzo. Lasterkari multzo batek tropeletik ihes egin zuen eta Markelek bost laguneko bigarren talde batean egin zuen lasterketa ia osoa.

**PERTIKA** | KLUBEN ARTEKO EUSKADIKO TXAPELKETA

### Jonathan Perez arrasatearra nagusitu da zapatuan Anoetan jokatutako txapelketan

Real Sociedad elkartearen kamisetarekin irabazi zuen zapatuan Jonathan Perez arrasatearrak Pista Estaliko Kluben Arteko Euskadiko txapelketa. 4'85 metroko jauziarekin lortu du Perezek garaipen berri hau. Guillermo Gonzalez zuen txapelketa honetan arerriorik gogorrena, baina Zaragozakoak ez zuen 4'50 metroko barrera gainditu. "Sentsazio oso onak nituen txapelketan eta nire marka pertsonala gainditzen ere saiatu nintzen", adierazi digu Jonathanek. "Ez nuen 4'96 metroko barrera gainditzerik izan. Bost metrokoarekin ere saiatu nintzen baina ezinezkoa izan zen". Jonathan, orain, bi aste barru Valentzian jokatuko den Errege Kopa prestatzen ari da buru belarri.

• Oñatiko abesbatzek ikusleen txalo zaparrada jaso zuten 'Horra Mari' ikuskizunarekin | 24
• Euskal Herriko Bertso Txapelketako finalistek Oñatiko kiroldegia bete zuten | 25
'Seussen Mundua'-ren balorazioa egin du Valen Moñuxek, obraren zuzendari artistikoak | 26

'ESKORIATZA OSOA MUSEO BAT' PROIEKTUA

**ONDAREA** | ESKORIATZAKO IBARRAUNDI MUSEOAREN HELBURUA DA BERRITZEKOTAN DIREN ZUBIATE LABEAN IKUSGAI JARTZEA ZERAMIKA BILDUMA

# Euskal Herriko zeramika bilduma erosi du Ibarraundik

*240 piezak osatzen dute bilduma eta Bitoriano Larrañaga bergararrari erosi diote*

*Ibarraundi Museoan ikusgai jarriko dituzte otsailean. Zubiate labea berritu eta gero hara eroango dituzte*



MONIKA BELASTEGI

Ibarraundi Museoan gordeta dituzte piezak eta arduradunek otsailerako erakusketa prestatzen dihardute.

Monika Belastegi

Ondare historiko-artistikoa iraunarazi, babestu eta zabaltzeko ahaleginean, *Eskoriatza osoa museo bat* izeneko proiektuan murgilduta dago Eskoriatzako Udala 90eko hamarkadaren erdialdetik. Ibarraundi Museoa zabaldu zuten iaz, baina herriko harribitxiak ez dituzte lau horma horien artean bakarrik gorde nahi. Museoaren kanpoko aldean, herrian barrena dituzten elementu historiko-artistiko eta etnografikoei duten balioa eman nahi diete. Hori horrela, *Eskoriatza osoa museo bat* proiektuaren barruan parke etnografikoa egin nahi dute Udal arduradunek. Parke horrek batuko lituzke besteak beste, Zubiate labea, Elorretako errotak, Olazar ola eta Alberja-zaharra garbitegia.

**ZERAMIKA BILDUMA, LEHENENGO URRATSA**

Esandako eraikinetatik zaharberrituko duten lehenengoa Zubiate labea da, eta proiektu horren baitan Euskal Herriko zeramika bilduma erosi du Eskoriatzako Udalak. XIX. mendearen bigarren erdialdean hasi eta XX. mendera arteko piezek osatzen dute bilduma eta Bitoriano Larrañaga bergararrari erosi diote, 60.000 euroren truke. Hark 35 bat urtean Euskal Herriko baserri, komentu, jauregi eta etxeetan batutako piezak dira, guztiak etxeko erabileradunak: azpilak, txongilak, poteak, aurtzak, pitxerrak, pixontziak, lapikoak… Udalak, erosketa egin aurretik eta bildumaren balio historiko-artistikoa jakin nahian, Fernando Diaz adituari – ondare historikoaren zaintzan aditua– azterketa egin zezala eskatu zion. Adituaren esanetan "bilduma interes gorenekoa da, piezak oso ondo aukeratutakoak eta adierazgarriak direlako". Bestalde, gehitu zuen zaila dela gaur egun antzeko bilduma bat lortzea.

> ***Eskoriatza osoa museo bat* proiektuarekin bat dator erosketa**

> **XIX. mendearen bigarren erdian hasi eta XX. mendera arteko piezak dira**

**BILDUMA ZUBIATE LABERA**

Ibarraundi Museoko arduradunen esanetan, otsailean erakusketa egingo dute bildumako hainbat piezekin, baina azkeneko helburua da piezok Zubiate labera eraman eta han erakusketa iraunkorra jartzea. Modu horretan, Zubiate labea euskal buztingintzari eskainitako museo bihurtuko da. Horretarako, Zubiate labea zaharberritu behar dute lehendabizi.

## Zubiate labea Monumentu izendatu zuen Jaurlaritzak 2002. urtean

**Eskoriatzako Zubiate labea artisau-instalakuntzaren adierazgarri da eta etnografikoki interes handikoa; izan ere, antzina garrantzia handia izan zuen artisau-jarduera baten adierazgarri da: han egin eta garatu ziren euskal zeramika herritarraren hainbat mota eta modelo. Gainera, mota horretako oso labe gutxi geratzen dira EAEn, eta Gipuzkoan geratzen den bakarra da. Garrantzia horren adierazle da, bestalde, Monumentu izendatu zuela 2002. urtean Eusko Jaurlaritzak. Aranzadi Zientzia Elkarteak ere labearen garrantzia nabarmendu zuen 2002an egindako interbentzio arkeologikoaren ostean egindako txostenean: "Zutik dirauen Euskal Herriko zeramika labe onenetarikoaren adibide da", dio txostenak.**

**Zubiate labea Ibarraundi Museoaren parean dago, Gaztanadui kaleko 29-31 zenbakien atzeko aldean. Harri-hormadun eraikin txikia da, lau angeluko oinplanoa du eta aurrealdeko egitura egurrezkoa. Gorako aireztatzedun labea da, arabiar izendatzen direnetakoa, eta ezaugarri gisa dute oinplano laukia, eta bereziki, esmaltatutako zeramika egiteko zulo askodun parrilla. Gaur egun etxebizitzak eraikitzen dihardute labearen alboan eta etxebizitzok inguratuta geratuko da.**



'ESKORIATZA OSOA MUSEO BAT' PROIEKTUA

**BITORIANO LARRAÑAGA** | ZERAMIKA BILDUMAREN EGILEA

# "Euskal zeramikaren ezaugarria da erabiltzeko zeramika dela, ez apaingarri gisa edukitzekoa"

Monika Belastegi

**Bitoriano Larrañaga bergararrak 35 bat urtean barrena batutako piezak dira Eskoriatzako Udalak eskuratu dituenak. Etnografiaren maitale, antzinako tresnen denda du gaur egun Bergaran.**

**Noiz hasi zinen bilduma hau osatzen eta zergatik?**

Bildumarekin eta etnografiarekin, oro har, oso gazte nintzela hasi nintzen; hamasei urterekin edo. Hemengo gauzak gal ez zitezen ekin nion bideari. Hura izan zen abiapuntua, denborarekin areagotu egin dena.

**Hogeita hamabost bat urteko lana, beraz, Eskoriatzara saldutakoa.**

Bai, eta 240 pieza. Euskal zeramika piezak, hain justu ere. Marañon, Irunberri eta Lizarrako pieza oso politak eta garrantzitsuak daude bilduman. Arabako buztingile askorenak ere badaude eta baita Bizkaia eta Gipuzkoakoak ere.

**Baina Zamoran egindako piezak ere badaude bilduman.**

Bai. Handik esmaltatu gabe ekartzen zituzten eta hemen esmaltatzen zituzten, hemen bukatzen ziren. Zamoran esmaltatu gabe erabiltzen zituzten sukalderako piezok, baina hemen ez ziren gustuko buztinezko pieza gordinak, esmaltatu gabeak hain justu, eta erabiltzeko esmaltatu egiten zituzten. Hori horrela, nahiz eta piezak Zamoratik ekarri, hemen ematen zitzaienez estainozko estalki adierazgarri hori eta hemen erabili izan direnez, euskal zeramikaren sailean sartzen dira.

Kontuan hartu behar da hemengo buztina ez dela ona, zartatu egiten dela sutan erabiliz gero. Beraz, sutarako piezak, lapikoak eta halakoak, kanpotik ekartzen ziren eginda eta hemen bukatzen zituzten esmaltatuz. Eta sutan erabili behar ez zirenen kasuan, bada, pitxerrak, tupinak... prozesu guztia hemen egiten zuten: hemengo buztinarekin egiten zituzten eta baita hemen esmaltatu ere.

**Zein garaitaz dihardugu berba egiten?**

Bildumako pieza gehienak XIX. mendearen bigarren erdialdean hasi eta XX. mendera artekoak dira. Gerra aurreko piezetako esmaltea zuriagoa da eta gerra ostekoa horixkagoa.

**Non batu dituzu piezok?**

Baserrietan, komentuetan, jauregietan eta batzuk, nafarrak batik bat, antzinako tresnen dendetan.

**Zein da euskal zeramikaren ezaugarririk nagusiena?**

Erabiltzeko zeramika dela. Ez da apaingarri gisa erabiltzeko zeramika. Horregatik, Ibarraundi Museoan piezak ikusgai jartzen dituztenean erakusketa ikustera joaten denak ikusiko dituenak dira: sukaldatzeko tresnak, ardoarendako eta urarendako pitxerrak, gozoak gordetzeko ontziak... Oso pieza onak daude eta uste dut ezinezkoa izango litzatekeela gaur egun halako bilduma bat egitea, merkatuan ez delako ezer geratzen, hutsik dago. Hala eta guztiz ere, bildumaren zati bat joan da Eskoriatzara. Etxean beste batzuk jaso ditut.

> "Oso pieza onak daude bilduman. Gaur egun ezinezkoa izango litzateke halako bilduma egitea"

> "Eskertzekoa da, noski, Eskoriatzako Udalak nigan eta nire bildumarengan jarri duen konfiantza"


MONIKA BELASTEGI
Bitoriano Larrañagak antzinako objektuen denda du gaur egun Bergaran.

**Pena emango zizun, dena den, bilduma Bergaran ez geratzea.**

Bai, pena eman dit. Nire betiko gogoa izan da bilduma Bergaran lagatzea. Foru Aldunditik etorri izan dira eta bildumagatik eskaintza egin, baina ez dut saldu nahi izan egunen batean Bergaran erakutsiko zelakoan. Baina ez da horrela izan eta esan beharra dago izugarri eskertzen diodala Eskoriatzako Udalari eta, oro har, herriari, nire bilduman eta lanean jarritako konfiantza.

**Eskultura egilea ere bazara, eta sariak jasotakoa, gainera.**

Bai, brontzearekin egiten dut lan eta Gipuzkoako Eskultore Berrien Lehiaketan aurkeztu nintzen lehenengo urtean finalista geratu nintzen; hurrengo bi urteetan lehenengo saria eskuratu nuen. Gainera, lehiaketara bi lan aurkezteko aukera zegoen eta lehenengo urrats gisa egiten zuten bahetzetik beti pasatu zizkidaten bi lanak lehiaketara.

• **BATIK BAT SUKALDERAKO PIEZEK OSATZEN DUTE BILDUMA**







JOSETXO ARANZABAL
Abeslariak, musikariak, antzezleak zein zuzendaria pozik geratu ziren egindako emanaldiarekin.

# 'Horra Mari' ipuin musikatuak Santa Ana aretoa bete zuen

*Emanaldiak bi zati izan zituen. Ohiko emanaldia egin zuten abesbatzek lehenengoan; bigarrenean, 'Horra Mari'*

**Non.** Oñatiko Santa Ana aretoan.
**Zenbat jende.** 600 bat lagun.
**Iraupena.** Ordu eta laurden. Bi emanaldi egin zituzten, abenduaren 29an bata, eta 30ean, bestea.

M.B.

Lepo bete zen Oñatiko Santa Ana *Horra Mari* ipuin musikatua ikusteko. Herriko abesbatzek egindako emanaldia izateak areagotu egin zuen ikusmina. Horren erakusle da sarrera guztiak aldez aurretik saldu eta hainbat lagun kanpoan geratu izana.

**HERRIKO ABESBATZAK PROTAGONISTA**

Ganbara Txikik, Ganbara Txikitxoak, hamar musikariz osatutako ganbera orkestrak, antzerki taldeak eta Xabi Ormazabal narratzaileak hartu zuten parte, 110 bat lagunek guztira, Aitor Biainen zuzendaritzapean. Lau hilabetetan zehar egindako lanaren fruitua erakutsi zuten Santa Anan, eta entzuleak gustura egon ziren; batzuei motza ere egin zitzaien ordu eta laurdeneko emanaldia.

*Horra Mari Domingi* Gabonkanta ezagunean oinarrituta dago *Horra Mari* eta orkestra, narratzaile eta koruarentzat idatzita. Musika David Azurzarena da eta hitzak, berriz, Joxemari Iturralderenak. Oñatiarrek, gainera, antzerkia gehitu zioten ipuin musikatuari musikal antzeko bihurtuz.

**BI ATALEKO EMANALDIA**

Bi zati izan zituen kontzertuak. Lehenengoan banakako lana egin zuten Ganbara Txikitxoak lehenengo eta Ganbara Txikik gero. Eta bigarren zatian egin zuten *Horra Mari*.

# Barroko garaira gerturatu zituen entzuleak Conductus Ensemble taldeak

*Arrasateko parrokia bete-bete eginda, konpositore barrokoen piezekin osatutako Gabonetako kontzertu berezia egin zuten*

J. B.

Alemania eta Italiako barrokoan oinarritutako errepertorioarekin, Gabonetako kontzertu berezia egin zuen Conductus Ensemble taldeak Arrasateko parrokian. Eliza lepo beteta, barroko garaiko musikaren erakustaldi txikia egin zuten zapatuan. Izan ere, barrokoko piezak ezagutaraztea da abesbatza eta hari-laukote honen helburuetako bat eta horregatik Bach, Vivaldi edota Haendelen obrez gain, XVII. mendeko konpositore ezezagunagoen piezekin borobildu zuten emanaldia. Taldea berria bada ere, esperientzia zabaleko eta maila altuko kideek osatzen dute Conductus Ensemble proiektua, Andoni Sierraren zuzendaritzapean. Musika bokala eta harizko instrumentuak uztartzea da taldearen ezaugarria.

**BAKARLARI SORTA APARTA**

Hari-laukotearen jarduna gutxietsi barik, aipagarriak izan ziren ahots-bakarlarien parte-hartzeak. Haizea Muñoz, Arantza Etxabe eta Moira Zeberio sopranoek, David Azurtza kontratenoreak eta Jesus Gartzia Arexula baritonoak abestu zuten zapatuan hurrenez hurren.



JOSETXO ARANTZABAL
Barrokoan espezializatu dira Conductus Ensemble taldekoak.

# Berbaz beteriko magia saioa

*'Druidas y leyendas' ikuskizuna eskaini zuen Iñigo magoak Errege egunean Elgetako Espaloian jendearekin jolasten*

Asteleheneko Goienkaria

Magia egiten ikasi nahi duen magia ikaslea batetik, eta magia liburuaren laguntzaz ari den maisua. Biak dira Iñigo magoa eta horrela aurkeztu zuen bere burua Espaloian, Errege egunean. Uste baino jende gehiago batu zen ordu eta erdiko magia saioa ikustera. Esku jokoak egin zizkion publikoko ume bati eta oiloa lekuz aldarazi zion bigarren bati. Lankidea ere ke gortina baten ostean agertuarazi zuen eta ikusleetako bat airean zintzilik jarri zuen, eusten zuten kableak katanarekin ebakita. Amaitzeko, Iñigok eskuak lotuta zituela kutxa baten sartu eta eszenatokitik tabernara joatea lortu zuen ikusleak ezertaz ohartu barik.



JOSETXO ARANTZABAL
Publikotik aukeratutako ikusle bat airean zintzilik jartzea lortu zuen Iñigo magoak.

**BERTSOLARITZA** | EUSKAL HERRIKO TXAPELKETAKO 6 FINALISTAK OÑATIN IZAN ZIREN ERREGE BEZPERAN

# Bi orduko bertso jarduna "serio, barrez, suabe" egin zuten finalistek

*Zubikoa kiroldegian batutako entzuleek txalo eta oihu artean hartu zituzten Txapelketako sei finalistak*

**Non.** Oñati.
**Zenbat jende.** 600 bat lagun.
**Iraupena.** Bi ordu inguru iraun zuen saioak.

Irati Agirreazaldegi

Zubikoa kiroldegia jendez lepo bete zen Errege bezperako bertso saioa entzuteko. Sei bertsolari oholtza gainean, seiak Txapelketako finalistak: Aitor Mendiluze, Amets Arzallus, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Igor Elortza eta Unai Iturriaga. Egoitz Aizpuru oñatiarraren esanetara jardun zuten bertsotan.

Txalo eta oihu artean hartu zituzten zaleek bertsolariak eta agurren ostean guztiek ofiziotan egin zuten. Umore kutsuan batzuek, serio besteek eta goxo antzean ere bai, Egañak azken agurrean esan zuen modura. Serio antzean hasi zen saioa, baina Iturriagak eta Lujanbiok jendearen barreak lapurtu zituzten. Bikotea ziren, eta Gabonetan Unaik oparitutako kolonia oraindik Maialenek ez duela erabili esan zien gai-jartzaileak.



IRATI AGIRREAZALDEGI

Iturriaga, Elortza, Lujanbio eta Egaña bikoteka lanean.

**TABAKOAREN AURKAKO LEGEA ETA GAZTETXEA**

Amets Arzallus egun hartako misioarekin bat ez zetorren ertzainaren paperean ipini zuen gai-jartzaileak. Oñatin, gaztetxearen eraistea aipatu gabe ezin utzi eta hiru bertso polit bota zituen hendaiarrak.

Ondoren berriz ere ofiziotan egin zuten seiek, bikoteak aldatuta. Tabakoaren legeaz jardun zuten Mendiluzek eta Elortzak; Lujanbiok eta Egañak jubilatutako emaginaren eta enterratzailearen ahotik kantatu zuten eta bertsoaldi honetan ale politak entzun ahal izan ziren. Unaik eta Ametsek fikziozko gai bati eutsi zioten gaztelu baten topo egin zuten mamuaren eta ikertzailearen arteko elkarrizketan.

Mendiluzek bakarka jardun zuen eta berriz ere egin zuten gero ofiziotan. Maialenek eta Aitorrek saio polita egin zuten errege bezperan lorik egin ezinda altxatu den umearen eta opariak ipintzen ari den aitaren paperean, hurrenez hurren.

> Tabakoaren Legeaz jardun zuten Mendiluzek eta Elortzak

Seina punturi erantzun zieten Egañak eta Iturriagak ondoren, eta entzun zen ale politik; txapelketa, gaztetxea, eliza eta Gabonak izan zituzten gaitzat.

Lantegira eraman zituzten bertsolariak ondorengo bi bertsoaldietan.

Mediku azterketa izan zen lehenengo gaia eta bigarrena, berriz, koplatan egindako bi langileren arteko eztabaida.

**GABON UKITUA ERE BAI LAGUN EZKUTUAREKIN**

Jaialdiari Gabon kutsurik ere ez zitzaion falta izan; lagun ezkutuaren jolasa egin zuten bertsolarien artean.

Puntuka amaitu zuten saioa eta erre barik egondako bi orduak izan zituzten gaitzat. Egañak argi utzi zuen saiorako "ideiak sobera baina atzazalak faltan zituela".

Bi ordu pasakoa izan zen saioa, bertsozale oñatiarren gozagarri; eta hurrengoan ere han ikusteko nahia azaldu zuten bertsolariek.

# Agur gozoa eskaini zieten jarraitzaileei Kañeriakoek

*Festarako gogo galantarekin eta guztia emanez esan zuten agur Garagartzakoek egubakoitzean*

Asteleheneko Goienkaria

Berriz ere agur esateko festa galanta egin zuten garagartzarrek egubakoitzean Arrasateko 3.60-en. Disko bakarrarekin, baina jarraitzaile sutsu andanarekin agur esan zuen Arrasateko bandak kontzertu luze eta bertsioz jositako batean.

Soberan da Kañeria 13koek eszenatoki bat zer den ondo dakitela esatea. Ikuskizunaren jaun eta jabe izan zen *Ulli* abeslaria. Gelditu barik dena eman zuten zaleen buruzagi lana ondo baino hobeto bete zuen eta ezin hobeto pasatu zuten festan. Izan ere, kontzertua baino jaia izan zen garagartzarrena, konfeti eta guzti. Agur esan zuten, eta horregatik, iskanbila ia ezinbesteko baldintza zen.

**NORBERAK BERE BIDEARI**

Kañeria 13k ibilbide labur baina oparoa eten badu ere, kideak oholtzan ikusteko makina bat aukera izango da etorkizunean ere. Ipurtarin hauek makina bat proiektutan parte hartzen dute eta geldi geratzeko asmorik ez dutela argi dago. Gatillazo, Jukebox... ziur taldekideek euren onena zuzenean eskaintzen jarraituko dutela.

Orotara, agurrak garratzagoak izaten badira ere, luzarorako aho-zapore gozoarekin irtengo zen asko 3.60 aretotik.



JOSETXO ARANTZABAL

Osoron gitarran eta *Ulli* abesten adio kontzertuan.

*Seussen Mundua* musikalak merezitako arrakasta izan zuen Bilboko Euskaldunan. Abenduaren amaieran estreinatu zuen Bergarako Orfeoiak Theodor Seuss Geisel idazlearen lanean oinarritutako musikala, Broadwayko musikalen erara. Estreinaldi eguna bikaina izan zen. Hurrengo egunean ordea, arazo tekniko guztiak batera jasan behar izan zituzten bergararrek. Hala ere, Bergaratik joandako publikoari asko gustatu zitzaion ikuskizuna. Hurrengo hitzordua Bergaran izatea nahiko lukete.

**VALEN MOÑUX** | ' SEUSSEN MUNDUA' MUSIKALAREN ZUZENDARI ARTISTIKOA

# "Udalaren hitza daukagu laguntza jasoko dugula aurten musikala herrian erakusteko"

Marijo Deogracias

**Nola konpondu zineten Euskaldunan?**

Aurre estreinalditik estreinaldi egunera ordu laurdeneko mozketa egitea lortu genuen eta horrek bizitasuna eman zion ikuskizunari. Estreinaldiaren aurreko entsegua oso zaila izan zen, Euskaldunan egin genuen lehenengoa zen eta benetako argiekin barik hango argiteriarekin egin behar izan genuen; horrek ikuskizuna ilundu egin zuen, ezin izan genuen ikuskizuna bere osotasunean ikusi. Hala ere, entsegu orokorrean, beste itxura bat hartu zuen musikalak eta espero genuena baino askoz ere hobeto atera zitzaigunez, estreinaldira oso baikor joan ginen.

**Orduan estreinaldi arrakastatsua izan zenuten.**

Benetan bai. Esperientziak esaten digu, estreinaldiak onak izan arren, beti geratzen direla hobetzeko alderdiak, baina gure kasuan itzelezko zortea izan genuen eta estreinaldia bikaina izan zen.

**Bigarren eguna, ordea, beltz samarra suertatu zitzaizuen.**

Gertatu zitezkeen zorigaiztoko gertakari guztiak jasan genituen: goizean aldi berean kargajasogailua den eszenatokia hondatu zen, Euskaldunan eskaintzekoak ziren *El holandes errante* operaren materiala kargatzen ari zirela. Goiz osoa eszenatoki barik egon ginen eta ia ikuskizuna bertan behera geratu zen. Gu sartu baino bost minutu lehenago konpondu zuten, baina soinu mahaia hondatu zen eta denborarik ez zegoenez ordezkoa jartzeko, Euskaldunako mahaia erabili behar izan genuen. Ondorioz, orkestra anplifikatu barik aritu behar izan genuen; erabateko desoreka musikala egon zen saio horretan. Eta, gainera, soinu efektuen ordenagailua ere hondatu egin zen. Kirtenkeria mordoa jarraian eta saioa, jakina, oso txarra. Balitekе *El holandes errante*-ren espirituaren eraginez-edo, baina saiorik zorigaiztokoena izan zen abenduaren 28koa, inuzente egunekoa, hain justu.

**Eta amesgaiztoa justu bergararrez beteriko autobuskadaren egunean gainera!**

Bai, baina autobusak bigarren saiorako etortzekoak ziren eta bigarren saiorako soinu mahaia konpondu ahal izan zuten. Bigarren saio horretako giroa ederra izan zen: publikoa erabat lotu zitzaion ikuskizunari eta hori igarri egin genuen. Dena dela, oso pozik amaitu genituen emanaldiak, azkeneko biak ere bikainak izan zirelako.

**Hortaz, merezitako Gabon oporrak izan dituzue.**

Beti esan izan dut gustura egiten den lana ez dela batere nekagarria. Egia da tentsio handiko egunak izan zirela, baina giro oso onean aritu gara eta horrek asko balio du nekeari aurre egiteko.

***Seussen mundua* musikala orain arte egindako musikalen aldean bestelakoa zen erabat. Zer nolako kritikak egin dizkizuete zuen ingurukoek?**

Uste nuena baino sorpresa gehiago sortu du musikalak. Musikalaren baloreak oso berritzaileak ziren eta jendeak sorpresa handia hartu du gauza berri asko ikusi dituelako; nik uste nuena baino sorpresa handiagoa hartu duela esango nuke, baita gure aurreko muntaiak ezagutzen zituen jendearen artean ere.

**Produktoreak zer eskaini dizue?**

Ikuskizuna Euskal Herriko beste leku batzuetara mugitzeko asmoa dutela agindu digute; eta orain arte esandako guztia bete dutenez, ziur naiz hau ere beteko dutela eta berandu baino lehen berriz antzeztuko dugula *Seussen Mundua*.

**Dena dela, ederrena, Bergaran bertan antzeztea litzateke, ala?**

Udalaren hitza daukagu. Alkatea estreinaldian izan zen eta esan zigun laguntza jasoko dugula aurten musikala herrian erakusteko. Nire ilusiorik handiena Bergaran berrestreinaldia egitea litzateke. Laguntasuna ematen badigute, lana egokituko dugu behar den eszenatokira, Frontoira ere bai.

**Eta, sarrerak nola joan ziren?**

Arratsaldeko saioak eskasenak izan ziren. Kalte egin digu Gabonetako jaiegunak asteburuan izatea; izan ere, jendea asteburuetan mugitzen da.

**Zein izan da zailtasunik handiena?**

Erritmoari eustea. Hala eta guztiz ere, lana hain ondo atera izana tramoiari taldeari zor diogu neurri handi batean. Lan bikaina egin du haurren amekin osatutako taldeak. Barruko produkzio taldearen funtzionamendua ere oso eraginkorra izan da; Arriagako zuzendari teknikoak kontratatu egingo lituzkeela esan zigun! Kukubiltxokoek ere asko lagundu digute, azkeneko unerarte egon dira gure ondoan.

> "Gertatu zitezkeen zorigaiztoko gertakari guztiak jasan genituen Euskaldunan bigarren egunean"

> "Jendeak sorpresa handia hartu du gauza berri asko ikusi dituelako; uste nuena baino handiagoa"



ARTXIBOA

Valen Moñux aritu da zuzendari artistiko lanetan.

## Merezi izan du, ikuskizuna bikaina da-eta; askotan hunkigarria ere bai

**Bergarako Orfeoiak gainditu egin du bere muga eta aurreko musikaletan erakutsitakoa hobetu egin du. *Seussen Mundua* da antzeztu duen ikuskizunik onena, *Miserableak*, *San Martinen Estanpak* eta *Oliver!*-en gainetik.**

**Hori bai, Orfeoiak inoizko produkziorik garestiena izan du, ekoizpen-etxe profesional baten eskutik, eta sekula baino baliabide gehiago. Estreinaldia ere egin zitekeen aretorik onenean egin dute.**

**Hori igarri egiten da eta emaitza ikusgarria da, une hunkigarri (hasiera), barregarri (Tximinueta anaiak, Osokidetza doktorea...), sinpatiko (zirkoa, jenerala eta kadeteak...) eta zirraragarri (amaiera) askorekin. Musikalak bi ordu irauten badu ere, ez da luze egiten.**

**Abiapuntua ezin hobea da: *Seussical* musikala, Broadwayko ospetsu eta entzutetsuenetakoa. Partiturak musika estilo ugari nahasten ditu eta gaur egungo pop kulturaz zipriztinduta gaudenondako, lehen entzunaldian sartzen da.**

**Zorionak eman beharko dizkiogu, hortaz, euskarazko musikal hau aurrera ateratzeko azken bi urteotan lanean jardun duten 150 lagunei. Ezin ahaztu, haien gertugertuko senideak, erakutsi duten pazientziagatik. Txaloak haiendako ere badira. Orain, bertako agintariek ahalegina egin beharko lukete ikuskizun bikain hau Debagoienera ekartzeko, merezi du-eta.** | ENEKO AZKARATE



BENITO CANTERO

Zirkoarena ikusgarria da *Seussen Mundua* musikalean.

# Eskoriatzako baserrien argazki bilduma egin dute hainbat argazkilarik

*Ibarraundi museoan emango dute aurrerantzean herriko baserrien argazkiekin egin duten ikus-entzunezkoa*

Gorka Etxabe

Aretxabaletako Argazki Taldeak egin du Eskoriatzako baserrien gaineko argazki bilduma. Hiru urteko lanaren ondoren, Aretxabaletako Argazki Taldeak Eskoriatzako Udalaren esku utzi du herriko baserrien gainean egindako lana. Orain, Ibarraundi museoan ikus daiteke argazki bilduma hori, prestatu duten ikus-entzunezkoan.

**230 ARGAZKI**

